

ERRENTERIAKO HAPOaren AURRERAKINA

HERRITARREN PARTE HARTZEA ERRAZTEKO AURRERAKINAREN LABURPEN DOKUMENTUA

Errenteria eta
Hiri
Antolamenduko
Plan
Orokorra

BULTZATZAILEA

ERRENTERIA
UDALA

TALDE TEKNIKOA

HIRITIKAT

AURKIBIDEA

SARRERA 5

A. KONTZEPTUEN ARGITZEA 6

B. ETORKIZUNEKO ERRENTERIARAKO 10 PRINTZIPIOAK 8

D. KONTUAN HARTU BEHARREKO BALDINTZA NAGUSIAK 10

E. 2040KO ERRENTERIARAKO PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK 11

E.1.- ESPAZIO PUBLIKOA: AUZO POLIZENTRIKOEN HIRI BATERANTZ 12
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK 12
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK 12

E.2.- KONEKTIBITATE ONERAKO LAU ARDATZ: HURBILTASUNEKO HIRIA OINEZ 14
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK 14
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK 14

E.3.- IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA UDALERRIAN: ERRENTERIA HURBIL, EROSO, INKLUSIBO ETA JASANGARRIA 16
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK 16
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK 16
E.3.1. IRISGARRITASUN UNIBERTSAL: ARDATZAK, PASABIDEAK ETA IGOGAILUAK 17
Proposatutako esku-hartze espezifikoak: 17
E.3.2. MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUNA: HIRIA OINEZKOENTZAT ETA BIZIKLETARENTZAT BERRESKURATZEA 18
Proposatutako esku-hartze espezifikoak: 19
E.3.3. GARRAIO PUBLIKOA: TRENBIDEA LURPERATZEA 20
Proposatutako esku-hartze espezifikoak: 20
E.3.4. MUGIKORTASUN MOTORIZATUA 24
Proposatutako esku-hartze espezifikoak: 24
E.3.5. OSOTASUNAREN IKUSPEGI GEO-ESPAZIALA 27
Proposatutako esku-hartze espezifikoak: 27

E.4.- ETXEBIZITZA: HIRI-ORBANA GEHIAGO ZABALDU GABE ESKAINTZA HANDITZEA 28
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK 28
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK: hiriari forma emango dioten 10 antolaketa aukera 28

E.5.- EKIPAMENDUAK: MANTENTZEA ETA HOBETZEA 39
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK 39
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK 39

E.6.- ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA ETA LOKALA: ERAZTUN BERDERANTZ....42
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK....42
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK:....43

E.7.- GARAPEN EKONOMIKOA: ERABILERA MISTOAK HIRIAN ETA LURZORU BERRIA INDUSTRIARAKO....44
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK....44
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK:....44

E.8.- LANDA-INGURUNEAREN ANTOLAMENDUA....50
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK....50
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK:....50

E.9.-ONDARE NATURALA, KULTURALA, ARKITEKTONIKOA ETA ARKEOLOGIKOA BABESTEA....55
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK....55
PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK:....55

BEHIN-BEHINEKO ITXIERA....58

SARRERA

HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN AURRERAKINA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA ERRAZTEKO AURRERAKIN DOKUMENTUAREN LABURPEN DOKUMENTUA

Errenteriako HAPO idazteko fase honetan, HAPOren Aurrerakinaren Dokumentua dugu esku artean. Dokumentu horrek etorkizuneko hiria aurreikusten du eta eztabaidak irekitzen ditu. Hala ere, Aurrerakinak nahiko dokumentu teknikoa izaten jarraitzen du, luzea (formalismoak eta bete behar dituen legalitateak direla eta), eta, ondorioz, jasotzen den informazio ulertzea ez dago herritar guztien eskura.

Horregatik, Errenteriako HAPOko herritarren parte-hartze prozesua dinamizatzeko ardura dugun taldeak “dokumentu Pedagogiko” hau egitea erabaki dugu. Helburua etorkizuneko Errenteria zehazteko elementu garrantzitsuenak iragaztea da, modu ulergarrian eta ordenatuan aurkeztea. HAPOren Aurrerapen Dokumentua ulertzea erraztuz eta, horrela, kalitate handiagoko parte-hartze prozesua ahalbidetuz.

Beraz, dokumentu honek ez du nahi eta ezin du jaso aurrerapenean adierazitako guztia. Punturen batean jasotakoa nahikoa ez dela iritzita , puntu horretan sakondu nahi duten pertsonek, informazio gehiago jasotzeko aukera izango dute beti, Aurrerakin Dokumentua kontsultatuz. Bi dokumentuen egitura antzekoa izanik, dokumentu pedagogiko honek, jatorrizko Aurrerakin Dokumentuaren edukietan orientatzen ere lagunduko du.

A. KONTZEPTUEN ARGITZEA

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA (HAPO)

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra udalerri baten antolamendu-dokumentu nagusia da. Prozesu baten emaitza da, eta epe ertainera nahi den hiri-eredua objektibatu behar du. Horrez gain eredu hori egiteko moduak, plangintza-tresnak, epeak, bideragarritasuna eta abar zehaztu behar ditu. Arau-mailakoa da eta nahitaez gauzatu beharrekoa izanik, lurzorua sailkatu eta kalifikatzen du. Eremuak, obrak eta, behar izanez gero, egokitzapen juridiko posibleak ere definitzen ditu. Aurrerakinak berak horrela adierazten du:

"Hala ere, ez da espazio publikoaren urbanizazioari dagozkion soluzioak zehazten dituen dokumentua, jasangarritasunaren printzipioa kontuan hartuta udalerriko lurzoruaren erabileren erregulazioan jarraitu beharreko jarraibide orokorrak finkatzen dituena baizik. Formulatu beharreko HAPOaren xedea udal-eremuaren antolamendu integrala egitea izango da, bai hiri-gunearena zein landa-eremuarena. Baita lurzoruaren erabileren erregulazioa egitea ere lurralde oso horretan, dagokion hirigintza-proiektua zehaztuz" (Aurrerakina, 2021:2).

Errenteria aurreko HAPOa berrikusteko prozesuan dago orain. Hau 2004.urtean onartu zen, eta hiriaren diseinu-gida izan da urte horietan.

HAPO-aren behin betiko onarpenari begira, legez araututako hainbat fase bete behar dira. Horien artean, HAPOren Aurrerakin fasea (etorkizuneko hiria proiektatzen duten proposamenen lehen dokumentua), jendaurrean aurkeztu eta eztabaidatu behar dena. Horrela, Herritarren Partaidetza Programak (2020ko abenduan onartua) parte hartzeko, proposamenak eztabaidatzeko eta herritarrek bizi nahi hiriari buruz dituzten ekarpenak eta ideiak jasotzeko funtsezko prozesua arautzen du. Fase horretan gaude murgilduta. Parte-hartze presentzialaren faserik handiena ekainaren 28tik uztailaren 16ra izango da. Bestalde, ekainaren 28an irekitako alegazio-fasea irailaren 20ra arte egongo da zabalik.

Azpimarratu behar da, prozesu honenen aurretik, hainbat ardatz oinarri hartuta hiriaren diagnostikoa egin dela (mugikortasuna eta irisgarritasuna; gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza; kultura eta euskara; garapen ekonomikoa; klima-aldaketa, ingurumen-arriskuak eta hiri-metabolismoa; eta osasuna eta kirola). Azterketa hori jendaurrean jarri zen eta herritarren iritziarekin kontrastatu zen galdetegi baten bidez. Guzti hori Aurrerakin dokumentua egiteko oinarri izan da.

Esandakoagatik, hiriarentzat berebiziko garrantzia duen unean gaude. Datozen 15 urteetarako hiriaren oinarriak zehaztuko dira prozesuan. "Oinarri" horiek udalbatzarrean onartu beharreko "gidalerroetan" jasoko dira. Gidalerro horiek garatu eta zehaztu beharko ditu erredakzio-taldeak Errenteriako HAPOren behin betiko idazketan.

LURRALDEA ANTOLATZEKO GIDALERROAK (LAG)

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde-antolamendurako tresnarik orokorrena da. Honekin, EAEko lurraldearen ikuspegi integrala landu nahi da, ikuspegi zehatz batetik abiatuta. Honela lurralde osoaren antolamendu eta azpi-banaketa definitzen ditu, antolaketa koherenterako beharrezkoak diren proiektu estrategikoak, azpiegiturak eta kuotak (hala nola etxebizitza) zehaztuz. LAGek 15 "eremu funtzionaletan" banatzen dute EAE, eta Errenteria "Donostialdea-Bidasoa Beherea" eremu funtzionalean kokatzen dute.

EAEko LAGak 2019an onartu ziren, eta hemen eskura daitezke: https://www.euskadi.eus/lurralde-antolamenduaren-gidalerroak-lag/web01-a3lurral/eu/

LURRALDE-PLAN PARTZIALA (LPP)

Lurralde Plan Partzialak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan mugatutako eremu funtzionalen antolamendua definitzen duten plangintza-tresnak dira. Esan bezala, Errenteria "Donostialdea-Bidasoa Beherea" eremuan dago bilduta, eta 2016tik du LPP-a.

Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/web01-a3lurral/eu/contenidos/informacion/planes_territoriales_part_2018/eu_def/index.shtml

Donostiako eremu funtzionalaren barruko "metropolizazioaz" hitz egiten dugunean, LPP-a erreferentziazko dokumentuetako bat izango da prozesu hori administrazio publikotik nola kontzeptualizatu eta proiektatzen den ulertzeko. LPPak LAGetan ezarritako gidak bere gain hartu eta zehaztuko ditu. Era berean, LPP-an ezarritakoak HAPO-a baldintzatuko du.

LURRALDE PLANGINTZA SEKTORIALAK (LPS)

Lurraldearen dimentsioak antolatzeko eta erregulatzeko tresnak dira, eta lan espezifikoa, udalaz gaindikoa, integrala eta koherentea eskatzen dute. Horietako batzuk, hala nola EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, EAEko eskalarako sortu dira, eta beste batzuk Lurralde Historikoko eskalarako, hala nola Gipuzkoako Lurraldearen Bizikleta Bideen Arloko Plana.

Gaur egun, 9 dira Errenteria baldintzatzen duten LPS-ak, eta beste 5 daude idazteko prozesuan.

Hemen eskura daitezke: https://www.euskadi.eus/lurralde-plangintza-sektoriala/web01-a3lurral/eu/

GARATUTAKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Dakigunez, Errenteriak 2025 Plan Estrategikoa du. Plangintza honetan, eremu publikotik eta herritarretik egindako lan guztia oinarri hartu da, eta etorkizuneko Errenteria definitzeko eztabaida/ekintza estrategikoko ardatzak marraztu dira. Ardatz horiek partaidetza- eta eztabaida-prozesu osoan egongo dira.

Hala ere, Aurrerakinak hausnarketa-ardatzak aldatzen ditu. Gehienak lantzen dituen arren, hiria beste era batera antolatzen du. Ulerkera errazteko eta nahasketak eta eztabaida antzuak saihesteko, dokumentu honek Aurrerakinak jasotako hiri-proiekzioa errespetatzen du. Modu osagarrian, aipatutako konexioa egiteko, esku hartze lerro bakoitzean kolore bat sartuko da "lantzen duen ardatz estrategikoa" izenburupean. Horrela, Aurrerakineko proposamenak lan-ildo estrategikoekin lotuko ditugu. Hauek dira:

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna
- Garapen ekonomikoa
- Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza
- Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa
- Kultura eta euskara
- Kirola eta osasuna

B. ETORKIZUNEKO ERRENTERIARAKO 10 PRINTZIPIOAK

Errenteriako HAPOak datozen 15 urteetarako antolaketaren gidalerroak ezarriko ditu. Hau da, hiria zer eta nola eraikiko dugun 2040ra arte. Egungoak bezalako aldaketa handiko garaietan, funtsezkoa da sendotu nahi dugun eta behar dugun hiri-ereduari buruzko gogoeta egitea. Hiri-ereduari buruzko hasierako eztabaida honetarako (zeinetan lehentasunetan definitzen diren), 10 ideia-indar proposatzen dizkigu Aurrerakinak. Etorkizuneko Errenteria horren gidak, ardatzez ardatz, zehaztasunez zehaztasun, alternatibaz alternatiba zehaztuz joango dena.

PARTE HARTZEKO FASE HONETAN, EPE ERTAINERA NAHI DUGUN ERRENTERIA EZTABAIDATZEKO 10 PRINTZIPIO:

1. **Espazio publikoaren berrantolaketa polizentrikoa:** oinezkoentzako espazioa berreskuratuz eta auzo guztietan identitatedun espazio libreak identifikatuz:

   Auzo Bihotzak. Elkargune horietan honako hauek bermatu beharko dira.
   - Hurbileko ekipamenduak eta zerbitzuak.
   - Hiri-jarraitutasuna, sare-antolamenduarekin eta irisgarritasun unibertsalarekin.

2. **Espazio libreak berrantolatzea:** tokiko espazio libreen sarearekin, landa-eremuekin eta Aiako Harria Parke Naturalarekin lotzen diren korridore ekologikoekin jarraitutasuna artikulatuz.
   - Era berean, hirigunean berdeguneak eta landaredia integratzea bilatuko da.

3. **Hirigunean motorizatu gabeko mugikortasun-moduak bultzatzea:** oinezkoen/bizikleten aldeko neurri aktiboak eta aparkatzeko beharra orekatuz. Eremu horretan, trenbidearen lurperatzearen alde egitea, egungo Errenteria hobetzeko:
   - ETS linea lurperatu: Antxo eta Fanderia arteko tarte osoan egin behar da, Galtzarabordan eta hirigunean. Aukera emanez: trazadura hori oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide bihurtzea (motorrik gabeko mugikortasunaren ardatza) eta Gaztañoko trenbide-pasagunea kentzea.

4. **Eraikitako ondarearen gehiengoa finkatzea:** egungo hiria birgaitzeko eta berritzeko jarraibideak ezartzea. Bilatzen: hiri-jarraikortasuna, irisgarritasun unibertsala, energia-efizientzia.
   - Ildo horretan: katalogatutako elementuak, elementu arkitektonikoak, arkeologikoak eta naturalistikoak babesten direla bermatzea.

5. **Dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzoruaren erabilera optimizatzea:** berreskurapena, hiri-hutsuneen eraldaketa urbanoa eta auzo guztien eta hiri-bilbearen arteko artikulazioa.

- Auzoen regenerazio integrala: hala behar duten auzoetako jarduera integralak planifikatzea eta bideratzea.
- Dauden hiri-hutsuneak berreskuratzea: daudenak birgaitzea, hobetzea eta modu intentsiboan erabiltzea.
- Dentsitatea eta hiri-lurzoruko erabileren mistotasuna: egin beharreko esku-hartzeetan bateragarriak diren bizitegi, aisialdi eta jarduera ekonomiko erabileren mistotasuna sustatzea.
- Lurzoru berrien artifizializazioa saihestea. Hiri-orbana aurreikusi baino gehiago ez zabaltzea.

6. **Planaren denbora-mugarako (15 urte) aurreikusi beharreko bizitegi-eskaintza definitzea:** kokapena, jabetza-araubidea eta tipologiak.
    - Gauzatu gabeko bizitegi-garapenak: beren garapenaren egokitasunari buruzko hausnarketa amaitzea eta, baiezkoa bada, zehaztea: dentsitateak, erabilera bateragarrien mistotasuna eta horietan babes publikoko etxebizitzen zuzkidura.

7. **Hiri-barruan jarduera ekonomiko bateragarriak ezartzea:** hiri-jarduera ekonomiko jarraituak ezartzen laguntzea (erabilera mistoak).

8. **Landa-inguruneko lurzoruaren erabilerak arautzea:** haren babesa, ingurumen-hobekuntza eta lehen sektoreko jarduera sustatzeko.

9. **Lurralde-integrazioa:** hiriari oihartzuna eman eta egokitzea, lurralde-mailan egiten diren eta udalerria xede duten proposamenak aprobetxatzeko. Pasaiako portua, trenbide sare berria edo eskualdeko zikloturista sareak.

10. **Adostasun maila handia duen eta erabilgarria den HAPO-a sortzea:** HAPOaren sistematika eta dagozkion eremuak antolatzeko, kudeatzeko eta/edo gauzatzeko baldintzak berriz aztertzea. Sinergiak eta bideragarritasuna hobetzeko eta antzemandako arriskuak minimizatzeko.

D. KONTUAN HARTU BEHARREKO BALDINTZA NAGUSIAK

Errenteriaren izaera propioa minimizatu gabe, Aurrerakinak udalerria hartzen duen eskalarik zabalagoan pentsatzera gonbidatzen gaitu. Alde batetik, lerrokatze asko HAPO-an kontuan hartu eta islatu behar direlako. Bestetik, etorkizuneko planean erregulazio egoki batek gauza ditzakeen aukerak identifikatzeko.´

Aurrerakinak honela antolatzen du udalaz gaindiko eremua:

- Oarsoaldea: Errenteria + Lezo, Oiartzun eta Pasaia.
- Pasaiako badia: Errenteria + Lezo, Pasaia eta Donostia.
- Hiri-elkartea, LPPn mugatuta: Errenteria + Donostia Ekialdea, Lezo, Pasaia eta Oiartzun.
- Donostiade-Bidasoa Behereko Eremu Funtzionala, LAGetan mugatuta.
- Donostia-Baiona mugaz gaindiko korridorea.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoa.

Metropolizazio prozesuan den lurralde testuinguruan kokatzen da Errenteria. Hau 2016-ko LPP-ak gidatzen du, hortaz gutxienez Lurralde-antolamenduko plan zehatz bat du, eta honek: Usurbil, Lasarte-Oria, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Donostia, Pasaia, Lezo, Oiartzun, Irun eta Hondarribia hartzen ditu, baita Errenteria ere. Lurralde Plan Partzial honek Errenteria inplikatzen duten zenbait erabaki eta kokaleku bideratzen ditu:

- Jarduera ekonomiko eta logistiko berezien kokalekuak Oiartzunen, Lezon, Astigarragan eta Eskuzaitzetan daude.
- Parke zientifiko eta teknologikoen edo kualifikazio handiagoko enpresen proposamenak Miramon, Galarrreta, Pasaiako Portua, Irun eta Hondarribirantz bideratzen dira. Horrek ez du esan nahi Errenterian kokatu ezingo direnik, beharrezko baldintzak sortuko balira.
- Errenterian 2.784 etxebizitza berri ordenatzeko aukera aurreikusten du.

Hori dela eta, Aurrerakinak honako hau adierazten du: “Lurralde-antolamenduaren ikuspegitik, Errenteriako hiri-kokalekua metropoli-eremuaren bizitegi-hazkunde nagusia hartzeko leku egokitzat jotzen da, dagokion erabilera-mistotasunarekin (merkataritzakoak, hirugarren sektorekoak, ekipamenduak, etab.), baita Industria-izaerako ekonomia jardueren ezarpen gehigarrirako ere” (Aurrerakina, 2021:44).

Ondorio hauekin bat etorriz, Aurrerakinaren norabide hauetako alternatibak planteatuko direla ikusiko dugu:

- Garraio publikoa hobetzea, bereziki ETSren sarea, bizikleta-bideen sareak eta eskualdeko oinezkoen ibilbideak.
- Hiri arteko parkeekin loturak: besteak beste, Lau-Haizeta eskualdeko parke nagusia.
- Pasaiako badiar irteera: lurralde antolamendu planaren barruan sartzen da Errenteriako itsasertzeko fatxada Pasaiako Portuan (dagokion Antolamendu Plan Bereziak arautzen du). Horrela, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide jarraitua antolatzea proposatuko da.
- Errenteriako unitatea definitzea: “Azpimarratzekoa da udalerriak eta, bereziki, haren hiri-eremuak berezitasuna eta entitate propioa dituela, eta HAPO-ak indartu egin beharko duela” (Aurrerakina, 2021:45).

- Hiri-garapen integrala: bereziki kontuan hartuko duena “garapen jasangarria, hiri- eta ingurumen-kualifikazioaren eta duintasunaren, berdintasunaren, segurtasunaren eta gizarte-kohesioaren alde egiten duena, udalerrian sormen-jarduerak, berrikuntza eta hurbileko tokiko merkataritza garatzeko eta kultura eta ikaskuntza sustatzeko aurki daitezkeen indarguneak aprobetxatuz” (Aurrerakina, 2021:45).
- Erresilientzia: etengabeko aldaketaren eta egokitzapenaren garrantziaren ikuspegitik. Ildo horretan, arreta berezia jarriko du klima-aldaketaren, adimen artifizialaren eta teknologia berrien aurrean.

Ikusten dugunez, garrantzitsua da planaren garapena eta gauzatzea baldintzatzen duten udalez gaindiko elementuez jabetzea. Bai irekitzen lagun dezaketen aukerengatik, bai zaildu ditzaketenengatik. Ikuspegi orokor horretatik, goazen etorkizuneko Errenteriaren eztabaidara.

E. 2040KO ERRENTERIARAKO PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK

“Bidezkoa da azpimarratzea formulatzen diren alternatibak, beraz, ez direla estankoak, irtenbide mistoak edo are desberdinak ere onartzen dituztela baizik. Eta hartu beharreko plangintzaren irizpide, helburu eta konponbide orokorrak formulatzeko bide gisa ulertu behar direla”.

(Aurrerakina, 2021:21)

Aurrerapeneko dokumentu honen funtzioa ulertzeko oinarrizko kontzeptuak, prozesua eta testuingurua azaldu ondoren, ahalik eta modu sintetikoenean azalduko dugu Errenteriarako egindako proposamena. Horretarako, honako ardatz hauek garatuko ditugu:

- E.1.- Espazio publikoa: auzo polizentrikoen hiri baterantz.
- E.2.- Konektibitate onerako lau ardatz: hurbiltasuneko hiria oinez.
- E.3.- Irisgarritasuna eta mugikortasuna udalerrian: hurbileko Errenteria, erosoa, inklusiboa eta jasangarria.
- E.4.- Etxebizitza: eskaintza handitzea, hiri-orbana gehiago zabaldu gabe.
- E.5.- Ekipamenduak: mantentzea eta hobetzea.
- E.6.- Espazio libreen sistema orokorra eta lokala: eraztun berderantz.
- E.7.- Garapen ekonomikoa: erabilera mistoak hirian eta lurzoru berria industriarako.
- E.8.- Landa ingurunearen antolamendua.
- E.9.- Ondare naturala, kulturala, arkitektonikoa eta arkeologikoa babestea.

Ardatz/esku-hartze bakoitzean, lehen definitutako koloreen bidez zehaztuko da zein ildo estrategiko lantzen den

/Mugikortasuna eta irisgarritasuna/ Garapen ekonomikoa/ Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza/
Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa/ Kultura eta euskara/ Kirola eta osasuna /

E. 1. ESPAZIO PUBLIKOA: AUZO POLIZENTRIKOEN HIRI BATERANTZ

Garatutako ardatz estrategikoak

/Mugikortasuna eta irisgarritasuna/ Garapen ekonomikoa/ Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza/ Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa/ Kultura eta euskara/ Kirola eta osasuna/

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

Errenteria auzo-hiria da. Genealogia historiko desberdinagatik, urbanizazio motagatik, eremu horietan bizi den jende motagatik eta historia partekatuengatik, argi dago auzo desberdinek osatutako hiri batez ari garela. Espazio- eta hirigintza-mailan, maila sozio-ekonomikoan eta identitate-mailan. Aurrerakinak aberastasun hori jasotzea eta hiri plangintzara ere eramatea proposatzen du. Horrek hiri polizentrikoaren proposamena dakar, non "auzo guztiek auzoaren espazio libre eta adierazgarriak, elkarguneak eta biziguneak izango dituzten". "Auzoaren erreferentzia eta identitate lekua, auzoaren bihotz gisa. Aurrerantzean" auzo bihotza "non, gainera, hirugarren sektoreko jarduerak, merkataritzakoak bereziki, eta ekipamenduak lokalizatu ahal izango diren" (Aurrerakina, 2021:22). Ikusiko dugunez, puntu isolatuak izatetik urrun, oinezkoen eta txirrindularien arteko lotura eraginkorraren aldeko apustua egingo da.

PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK

Auzoetako Errenteria hori gauzatzeko proposatutako bi esku-hartze estrategikoak honako hauek izango dira:

- **1. Auzo bihotzak:** Auzo bakoitzean erreferentziazko eremu publiko bat definitzea proposatzen da. Auzotarrek aintzatetsitako topagunea, auzoko "elkargune" funtzioa beteko duena. Horretarako, auzo bihotz orok hirigintzaren ikuspegitik baldintza batzuk bete behar ditu:

    - Kokapena: kokapen ona eta auzotarrek onartua. Metatutako praktikan eta diagnostikoan oinarrituta, Aurrerakinak kokapen hauek proposatzen ditu (espazio publikoaren II.4 planoan ere adierazita). Aurrerakinak hiri eroso bat antolatzeko defendatuko duen bezala, beharrezkoa izango da kokapen hauen erdigunearekiko hurbiltasuna ere bermatzea (erdigunearen erreferentzia Foru Plaza izanik).

        - Agustink, Elias Salaberria plaza _11 min
        - Alaberga, Alaberga plaza_9min
        - Altzate, Altzate plaza_10 min
        - Beraun, Pablo Sorozabal plaza _ 19 min
        - Erdigunea, Foruen plaza_ 0 min
        - Fanderia, Dolores Ibarruri zumarkalea_ 15 min
        - Gabierrota, Evaristo Bozas plaza _ 10min
        - Galtzaraborda, Urdaburu plaza _ 16min
        - Gaztañ, Gaztaño plaza _ 6min
        - Iztieta, Diputazio plaza _ 5min
        - Kaputxinos, Fuente Pelayo plaza _ 19min
        - Lartzaba, Lartzabal plaza _ 19min
        - Olibet-Casa Nuevas, Gernika plaza _ 5min
        - Pontika, Jose Miguel Barandiaan parkea_ 5min
        - Gamongoa/Loidi, Gamongoa plaza_ 17min

- Auzo Bihotzeko espazio publiko erakargarria eta kalitatezkoa: horrek espazio nahikoa, hiri-altzariak, berdeguneak eta aire zabaleko guneak eta prozesuan definitu beharreko beste ezaugarri batzuk eskatzen ditu.
- Auzo Bihotzeko hurbiltasun-zerbitzuak: Auzo bihotzak auzoan bizitzeko aukera eman behar du. Horregatik, hiriko beste eremu batzuetara nahi ez diren lekualdaketak ekidinez. Horrek esan nahi du gertu izan behar direla ohiko erabilera duten zerbitzu publikoak (kirol eta/edo kultur ekipamenduak, zuzkidurak) eta zerbitzu pribatuen eskaintza (hurbileko saltoki txikiak). Hori prozesuan zehaztu beharko dela onartzen bada ere, auzo bihotzetarako araudi espezifikoa jasotzea proposatzen da, zerbitzu horiek ezartzen laguntzeko.

- **2. Bizikleta/oinezkoen eta auzo bihotzen arteko lotura hiri-bilbean:** auzoetako espazio publiko horiek oinezkoen/bizikleten sare baten barruan antolatzea proposatzen da, hiriko espazio libre/berdeak eta espazio publikoak lotuko dituena (Auzo Bihotzak barne). II.4 Espazio publikoa planoan ikus daitezkeen 4 ardatzetan egituratutako sarea (ardatzen proposamena hurrengo atalean garatuko da). Planoa gainditzen badu ere, sarea ahal den neurrian udalerrira hegoalderantz zabaltzea proposatzen da: jarduera ekonomikoetarako eremuak, landa-ingurunea eta Zamalbide eta Zentolen landa-auzoetako bizitegi-kokalekuak.



II.4. Espazio publikoa. Errenteriako zona urbanizatuaren plano honetan, gorriz ikusten dira proposatutako Auzo Bihotzak. Sozializaziorako eta auzo-bizitzarako nodo izateko tratamendu berezia izango luketen eremuak, bai eta aipatutako "hiri polizentrikoaren" oinarriak ere. Ikus dezakegunez, aipatutako oinezkoentzako/bizikletentzako sarearen barruan egongo lirateke, hurbileko hiri bateko puntu guztien arteko mugikortasun jasangarria bultzatuz.

E. 2. KONEKTIBITATE ONERAKO LAU ARDATZ: HURBILTASUNEKO HIRIA OINEZ

Garatutako ardatz estrategikoak

/Mugikortasuna eta irisgarritasuna/ Garapen ekonomikoa/ Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza/ Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa/ Kirola eta osasuna/

Errenteriaren dimentsioak, auzoen arteko distantziek eta, are gehiago, hirigunearen orografiak, hirigintzako oztopoak gainditzen dituzten elementuak ezarrita, aukera ematen dute hiriguneko edozein lekutatik, nagusiki bizitegitarakoak izanik, oinez joateko hirigunera, ordu erdi baino gutxiagoan. Horregatik da garrantzitsua ibilbide eta bitarteko mekaniko osagarriak aurreikustea.

(Aurrerakina, 2021:22)

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK: oinez dena eskura

Krono-Hirigintzak hiria denboraren ikuspuntutik irakurtzera gonbidatzen gaitu. Horrela, "Hurbileko" hiri bat, bizi-kalitatearen sinonimoa dena, ez da izango egunerokotasunean desplazatzen garen guneak hurbil izango dituena. Garrantzitsua dena, joan-etorrietako denbora (irtetea eta helmugara iristea) laburra izatea. da. Zentzu honetan, modurik eraginkorrena eta inklusiboena oinez edo bizikletaz joatea izango da. Horrela, hiri polizentrikoak eta hurbilekoak, oinezko eta bizikletentzako bideen sare eraginkor baten aldeko apustua egin behar du ezinbestean.

Errenterian hori gauzatzeko, garrantzitsua da bi ikuspegi osagarri uztartzea:

- Planifikazioa: auzoen arteko eta hauek erdigunearekin duten lotura bermatu behar da. Ibilbide sarearen ardatzez gain, ibilbide artikulatzaileak, hauetatik ateratzen diren garrantzia txikiagoko ibilbideak ere aurre-ikusi behar ditu. Hauek ezinbestekoak baitira abiapuntutik helmugarako joan-etorri eroso eta eraginkorrak egiteko.
- Ardatzen eraginkortasuna: honek esan nahi du erakargarriak izan behar dutela, beharrezko hiri-altzariekin, zuhaiztiekin eta abarrekin. Horrekin batera, ardatzak jarraituak eta inklusiboak izan behar dira. Mundu guztiak izan behar du ardatzak igarotzeko aukera. Hori dela eta, aipatutako korridoreetan irisgarritasun-elementuak (igogailuak, arrapalak, pasabideak, etab.) sartzen jarraitu behar dugu.

PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK: eraginkortasunerako 4 ardatzak, pasabideak, zubiak eta igogailuak.

Horrela, bada, Aurrerakinak oinezkoentzako kalitatezko sare bat sortzea proposatzen du, 4 ardatzetan oinarrituta. Proposatutako sarea "II.4" planoan ikus dezakegu. Hori funtsezkoa da espazio publikoaren, auzoen, mugikortasunaren eta, azken batean, Errenteriako bizi-kalitatearen artikulazioaren ikuspegitik. Beraz, sar gaitezen proposamenaren xehetasunetan.

Ipar/hego doazen bi ardatzen eta ekialde-mendebalde doazen beste bi ardatzen baitan artikulatzea proposatzen da.

- 1. ardatza: Olibet-Etxe berriak, Erdialdea, Pontika eta Gamongoa/Loidi auzoak lotzen dituen ipar-hego norabidea. Ez du aparteko kudeaketa eta/edo ekintzarik eskatzen, dagozkion urbanizazio-obrak baino ez.
- 2. ardatza: Gaztañoko trenbide-pasagunea eta hirigunean trenbideak suposatzen duen muga kentzea. Horretarako, trenbidearen trazadura lurperatzea aurreikusten da. Aurrerakin honetan proposatzen da lurperatze hori Fanderiarantz luzatzea, hasieran aurreikusitakoa baino neurri handiagoan. Oinezkoentzako mendebalde-ekialde ardatz bat askatzeko aukera emango luke, hala nola plaza bat antolatzea egungo geltokiaren kotan, Gaztaño auzoa Errenteriako erdigunean integratu ahal izateko. Ardatz honek jarraipena izango luke mendebalderantz Galtzarabordaraino, eta ekialderantz Gaztaño, Agustinak, Fanderia eta Lartzabalerantz, auzo horiek lotuz.
- 3. ardatza: Oiartzun ibaiaren bi ertzak irudikatzen dituen ardatz bikoitza. Oinezkoentzako ibilbide jarraitu bana dute, egin daitezkeen hobekuntza lanak baztertu gabe.
- 4. ardatza: nagusiki ipar-hegoa. Altzatetik, Iztietatik auzo berrira iristeko proiektatzen den zubi berriari jarraituz, Irun kaletik eta Bittor Idiazabal kaletik Galtzarabordako geltokiraino jarraituz.

Proposamen horri eusteak hiri-bizitzaren beste esparru batzuetan ere hobetzea ahalbidetuko luke:

- **Espazio libre eta berdeen sarea:** sareak “eraztun berde” hurbil bat du, elkar elikatzeko. Oinezkoentzako bideek sarbide irisgarria ematen diete espazio horiei, et honela, eraztun berdeak eta aipatu ibilbide sarea osagarritu egiten dira.
- **Artikulazioa:** sare horri esker, oinezkoek lotura hobea izango lukete hegoaldean dagoen industrialdearekin eta hegoaldean dauden landa-eremuekin. Era berean, Zamalbide eta Zentolen landa-auzoetara ere zabaldu daiteke ibilbide sarea. Eskualdeko bizikleta-bide sarearekin zein inguruko herrietara eta Aiako Harriak edo Lau Haizeta bezalako espazioetara joatea erraztuko luketen ibilbide osagarriekin antolatzeko aurreikusitako sarea izango da.
- **Bir-baloratutako espazio publikoa:** sare horretan, auzo bihotzez gain, elkarguneak daude, eta horiek berebiziko garrantzia dute oinezkoen sare hori eraginkorra izan dadin. Dela erdigunean (Foru plaza, Gamon zumarkalea, plaza, Xabier Olaskoaga, senidetutako herrien plaza, musika plaza, Koldo Mitxelena plaza eta Txirrita parkea), dela auzoen artean estrategikoki kokatutakoak: Antonio Valverde, Ganbo eta Luis Mariano plazak, eta Galtzaraborda, Gaztaño-Erdialdea eta Fanderia-Markola geltokietako plazak. Espazio horiek Aurrerakinaren arabera balioetsi beharko dira, funtzio artikulatzailea ere bete dezaten.



Planoan 4 ardatzak ikus ditzakegu (bi ipar-hego eta bi ekialde-mendebalde), hiri-bilbearen barruan sare bat egituratzen dutenak.

E.3.-IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA UDALERRIAN: ERRENTERIA HURBIL, EROSO, INKLUSIBO ETA JASANGARRIA

Garatutako ardatz estrategikoak

/Mugikortasuna eta irisgarritasuna/ Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza/ Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa/ Kirola eta osasuna/

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

Aurrerakinak irisigarritasunaren-mugikortasunaren eremua estrategikotzat hartzen du, hiri eroso, irisgarri eta inklusibo bat birkonfiguratzeko. Honi dagokionez, adierazten du helburua aurretik dagoen hiria sendotzea dela, ez izoztea, baizik eta eskuragarriagoa, seguruagoa, abegikorragoa eta atseginagoa izan dadin eraldatzea (Aurrerakina, 2021:27). Horrela, hiri-bilbean esku-hartze kirurgikoak egitearen perspektiba erabiliko da oinezkoak eta bizikleta lehenetsiz ibilbide eraginkorrak antolatzeko (oinezkoak, zikloturistak, motordunak).

Printzipio hori urratu gabe, Aurrerakinak sakoneko esku-hartzea beharrezkoa dela ondorioztatzen du. Honela, aipatutako 4 ardatzak, ibilbideak eta hiri-logika artikulatu ahal izango dira: aipatutako trenbidea (ETS) hirigunetik igarotzen den tokian lurperatzea. Esku-hartze honek, estrategikotzat joko dena, gainerakoen eraginkortasuna baldintzatuko du, eta baita proposatutako hiri-ereduaren osotasunarena ere.

Azaldutakoari zeharka, Aurrerakinak honako hau proposatzen du ardatz honetan: herritarrentzako kalitatezko espazio publikoa berreskuratzeko beharra, ibilgailuentzako aparkaleku berriekin konpentsatuz. Horrekin batera, natura hiri-bilbean ahalik eta gehien integratzeko apustua egingo du.

EKINTZA-ARLOAK ETA ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK

Aurrerakinak esku-hartze eremu hauek bilduko ditu hiri-antolamenduk oirisgarritasun-mugikortasunare ildo honetann:

E.3.1. Irisgarritasun unibertsala[1]: ardatzak, pasabideak eta igogailuak.

E.3.2. Motorrik gabeko mugikortasuna[2]: hiria oinezkoentzat eta bizikletentzat berreskuratzea.

E.3.3. Garraio publikoa: trenbidea lurperatzea.

E.3.4. Mugikortasun motorizatua .

1. Ildo hori lehendik egindakoaren gainean garatzea eta Errenteriak 2000. urteaz geroztik duen Irisgarritasun Plana sakontzea proposatzen da.
2. Ildo hori garatzea proposatzen da, Oinezko eta Txirrindularitzaren Mugikortasun Planean (2015) landutakoa jasoz. Gainera, kontuan izan behar da Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana laster argitaratuko dela, eta eztabaida honetako jarduera-ildoak zehaztu eta sakondu beharko dituela.

E.3.1. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA: ARDATZAK, PASABIDEAK ETA IGOGAILUAK

Helburua, erabilera eta desplazamenduari dagokionez Errenteria hiri inklusiboa bihurtzea da. Aurreko atalean proposatutako hiri-artikulazioko eskeman oinarrituta, pertsona guztiak hiriko leku guztietara ahalik eta erosoen iritsi ahal izatea bermatzeko esku-hartzeak proposatzen dira. Edozein direla ere bere baldintza fisikoak, adina, generoa edo bizilekua duen auzoa.

Puntu honetan, dokumentuan proposatzen den zubi, pasabide eta igogailuen sarea nabarmentzen da. Barneko oinezkoen ardatzak eta ibilbideak modu inklusiboan artikulatzea ahalbidetuko lukeen esku-hartze multzoa.

Proposatutako esku-hartze espezifikoak:

Garrantzitsua da zein interbentzio non egingo den zehaztea. Horrela, Aurrerakinak, egin beharreko jarduketa guztiak zerrendatzen ditu;

- Oiartzun gaineko zubia Altzate eta Iztieta artean
- Igogailu publikoa eta pasabidea Altzaten, Pasaiako badiaren ibilbidearekin lotuta
- Igogailu publikoa Altzaten, Lezoko mugan
- Igogailu publikoa Pontika eta Igantzi artean
- Igogailu publikoa Jose Miguel Baradiaran parkearen eta Arramendiren artean
- Igogailu publikoa Gaztañon
- Alaberga eta Galtzaraborda arteko pasabidea parkearen gainean
- Arramendi parkearen eta Palazio-zaharraren arteko pasabidea, saihesbidearen gainean

Zehaztapenarekin batera, Aurrerakinak itxi gabeko gaiak planteatzen ditu. Hauek prozesuan eztabaidatu beharko dira. Adibidez: Nola hobetzen dira irisgarritasun unibertsaleko baldintzak, hiri hegoaldean dauden jarduera-eremuekiko loturan? Eta Zamalbide edo Tolareko egoitza-kaskoekin?



II. Planoa. 4. Espazio publikoa. Kolore marroian kokatu dira aipatutako esku-hartzeak. Alzate eta Iztieta arteko zubiak Oiartzun ibaia gainditzen du eta bizitegi-garapen berria hiriarekin lotzen du. Hiri-bilbearen barruan, pasabideek eta igogailuek gaur egun hirian oinez erraz mugitzeko dauden oztopoak gainditu nahi dituzte.

E.3.2. MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUNA: HIRIA OINEZKOENTZAT ETA BIZIKLETARENTZAT BERRESKURATZEA

Lerro honek funtsezko garrantzia hartzen du egiaztapen soil batetik abiatuz gero: “Errenteriako desplazamenduen %80 oinez egiten dira” (PMCP, 2015). Beraz, desoreka handia dago ibilgailu motorizatu pribatuaren alde. Ohikoagoa eta inklusiboagoa da oinez joatea bizikletaz baino (hala ere, azken hori sustatu behar da).

Honi Errenteriako baldintza on bat gehitu behar diogu: dena nahiko hurbil dago, oinez egin daitekeen hiria da.

Hori kontuan hartuta, Aurrerakinak helburu hauei begirako esku hartzea proposatzen du:

- Oinezkoentzako bideen erosotasuna hobetzea.
- Oinez egiten diren joan-etorriak laburtzea eta erraztea.
- Harrapatze arriskuak murriztea.
- Oinezkoentzako gune erakargarri, seguru eta bizidun bat sortzea.
- Zarata eta kutsadura atmosferikoa murriztea.



Irudian ikus daiteke bidegorri sarearen planoa

Proposatutako esku-hartze espezifikoak:

Horretarako, honako esku-hartze hauek aurreratu ditu:

- Abiadura moteltzea eta trafikoa baretzea: Alaberga auzoa kalea, Sorgintzulo kalea, Beraun kalea.
- Oinezkoentzako espazioa berreskuratzea (oinezkoentzako kalearen azaleraren % 60): Sorgintzulo kalea, Galtzaraborda kalea, San Marko kalea, eta aipatutako ardatzak.
- Oinezkoen ahalduntzea eta lehentasuna azpimarratzeko neurriak: Sorgintzulo kalea, Urbasa kalea - Aralar plaza, Andoni Korta kalea - Aralar plaza, aipatutako ardatzez gain.
- Lehentasunezko sareko ibilbideen kalitatea (zuhaitzak, landaretza oro har, altzariak...): Aiako Harria kalea, Maurice Ravel kalea, Pontika kalea, eta aipatutako ardatzak.
- Ibilbideen informazio-seinaleak.

Bizikleta bideei dagokienez: sarea hobetu eta zabaltzearen eta eskualdeko sarearekin modu eraginkorrean konektatzearen aldeko apustua egin da. Aurrerakinaren arabera, azpiegitura bat sortu behar da bizikleta hiriko eguneroko joan-etorrietarako nahiz udalerri mugakideetara eta inguruko eremu naturaletara sartzeko (Aiako Harriak parke naturala, adibidez). Apustu horren barruan, honako hauek zehazten dira:

- 11,8 km-tik 25,1 km-ra igaro behar da sarea.
- Eztabaida publikoan ebatzi behar da: printzipio orokor gisa bide mistoen aldeko apustua (bizikleta/oinezkoa) edo zati bakoitzerako azterketa xehatua? Bigarren aukerak sare heterogeneoa dakar, eta konbinatu beharreko aukerak dira: bizikleta-pista, bizikleta-bidea, bizikleta-bidea galtzadan, bizikleta-bidea kontramanozko galtzadan, bizikleta-banda, bizikleta-kalea, etab.
- Konektagarritasuna: hirigune zentralarekin auzo bihotzak eta sare hori eskualdeko sarearekin lotzen dituen ziklobia-sarea. Azken horietatik, berebiziko garrantzia dute: Lartzabal-Arditurri eta Gabierrota-Ugaldetxo tarteak (Gipuzkoako Bizikleta Bideen Plan Sektorialeko Donostia Irun ibilbideko edukiak) eta Pasaiako Badia (Kaputxinoak eta Altzate).
- Bizikletentzako aparkalekua auzo guztietan.

E.3.3. GARRAIO PUBLIKOA: TRENBIDEA LURPERATZEA

Atal honetan, Aurrerakinak Plan Orokorraren denbora-esparrurako esku-hartze estrategikoenetako bat proposatzen du: trenaren lurperatzea (ETS sarea), Altzatik sartzen denetik, Galtzarabordatik pasatuta, Gaztañotik eta Fanderiaraino.

Trazadura hori oinezkoentzako arteria gisa berreskuratuko litzateke, helburu bikoitza betez:

- Oinezkoen ardatza irekitzea ahalbidetuko luke (etorbide handi bat). Etorbide hori ("trenbidearen etorbidea") ekialde-mendebalde ardatz nagusia da, norabide horretako joan-etorriak ahalbidetzen dituena, eta oinezkoen eta ziklo-bideen gainerako ardatzak antolatzen ditu, eta maila txikiagoko ibilbideekin lotzen ditu.
- Garraio publikoaren erabilera sustatzea: Errenteriak garraio publikoaren zerbitzu on samarra du. Hala ere, lurperatzearekin batera, trenaren maiztasun handiagoa eta Galtzaraborda eta Beraun, Alaberga, Galtzaraborda eta Kaputxinos auzo garaiak lotzeko "hodia" egongo lirateke. Goikaldeko auzoetako 5.000 bizilagun baino gehiagok ETS sarerako sarbide zuzena izango lukete. Horrek trenaren irisgarritasuna eta zerbitzua areagotuko lituzke, eta logikoa da pentsatzea erabilera asko handituko litzatekeela..

Gaztaño auzoan zentratutako planoak erakust



Proposatutako esku-hartze espezifikoak

Aurrerakinak funtsezko bi jarduera proposatzen ditu puntu honetan:

- **Trena lurperatzea:** gaur egun, ETSk Altza eta Galtzaraborda arteko sarea lurperatzea bultzatzen du. Aurrerakin honetan planteatzen da proposamen horrek ez dezala hipotekatu Galtzaraborda-Erdialdeko geltoki zatia lurperatzea eta gaur egun erdigunearen eta Gaztañoren artean dagoen trenbide-pasagunea kendu ahal izatea, epe luzeagorako aurreikusitako jarduketa baita "(aurrerapena, 2021:33). Hau da, lurperatze hori gauzatzeaz ari gara, eta aprobetxatzeaz HAPOarekin irekitzen diren aukera berri guztiak. Mugikortasunari, irisgarritasunari, inklusibotasunari, espazioak berreskuratzeari, bizilekuei, ekipamenduei eta, jakina, garraio publikoari dagokienez. Beste hobekuntza nabarmen batzuen artean, Gaztañoko trenbide-pasagunea kendu eta gaur egun hiria bitan banatzen duen espazio guzti hori berreskuratuko litzateke. Esku-hartze estrategiko honek hiri-espazioan berrantolatzeko aukera desberdinak irekitzen ditu. "Gaztañon askatutako espazioaren berrantolaketa" atalean esposatuko dira aukera hauek.
- **Zonalde garaietarako kanoia:** trenaren erabilera nabarmen indartzeko eta auzo altuetako konektibitatea hobetzeko, ekintza hau honakoekin osatzen da: "Oinezkoentzako sarbidea ematea Galtzarabordako geltoki berritik, kanoi baten bidez, udalerriaren goialdera: Beraun eta Galtzaraborda, Alaberga eta Kaputxinoko zonalde garaietara" (Aurrerakina, 2021:33). Hau da, 5.000 bizilagun ingururentzako konexio inklusiboa.

Amaitzeko, Aurrerakinak Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren Planean adierazitakoa ontzat ematen du:

- Hirugarren haria: ADIFen egungo trazaduran, Donostia-Irun korridorean, nazioarteko zabalera hartzeko.
- Merkantzia trenentzako saihesbide berria: Astigarraga-Lezo- Oiartzun trenbide-zatian, hiru aukera aurreikusten dituena (Aurrerakin dokumentuan daude eskuragarri).

en duenez, Fanderiaraino lurperatzea planteatzen da, Agustinetako biribilgunearen azpitik sakonenera pasatuz.



Gaztañon askatutako espazioa berrantolatzea

Deskribatutako sinergiez gain, lurperatzeak hiri-espazio berriak askatuko ditu. Garrantzi berezia du (behin kotxerak kenduta) Gaztañon askatutako espazioak. Ildo horretan, Aurrerakinak alternatibak jasotzen ditu (orain arte aztertu direnak eta gehigarriak), eztabaidatu ahal izateko. Kasu guztietan proposatzen da: trenbidea lurperatzea, trenbide-pasagunea kentzea eta antzinako kotxetegiak eraistea.

Alternatibek hainbat aukera emango lituzkete: Plaza bat erdigunea eta Gaztañoren artean, jarraitutasuna izango lukeelarik oinezkoen etorbide baten bidez mendebalderantz. Honez gain, Gaztaño pasealekuari jarraitasuna ematea proposatzen da, Agustinetako biribilgunearekin lotuz altxatuko litzakeen errepide-zubibide batez. Geltoki berria sortuko litzateke espazio berriaren protagonista. Era berean, igogailu publiko bat egingo litzateke zeinak zentroa eta Gaztañoko goialdea lotuko lituzkeenak. Kotxeren tokian etxebizitzak egitea proposatzen da eta etxabeetan jarduera komertzial



GAZTAÑO
ALTERNATIVA 2


GAZTAÑO
ALTERNATIVA 3


GAZTAÑO
ALTERNATIVA 4

E.3.4. MUGIKORTASUN MOTORIZATUA

Errenteriaren motorizazio indizea altua da: 2,34 biztanle/ibilgailuko. Gipuzkoakoa 2,05-ekoa da. Honela, Aurrerakinak honakoa planteatuko du: "mugikortasun jasangarritasun bateko apustuak, epe ertainean ibilgailu-parke honen jatsiera ekar dezake" (Aurrerakina, 2021: 37). Gainera errepide berrien eraikuntza mugatzeko apustua egingo da. Honek esan nahi du:

- **Errenteriak dagoeneko inguratzen duen bide-sare garatua duela.** Honek mota askotako oztopoak sortzen ditu (estetika, motorrik gabeko mugikortasuna, akustika, etab.), baina "bertatik kanpoko edozein helmugatara azkar iristeko aukera ematen dute, barne-mugikortasunari nabarmen eragin gabe". (Aurrerakina, 2021: 38). Bide-sarearen planoa Aurrerakinaren dokumentuan kontsulta daiteke.
- **Errepide gehiago baztertzea:** LPP-k GI-20 errepidetik aurreikusten duen hiri-eremurako sarbidea, Pontikan, eta Zamalbide eta Tolare hiriguneei eta Zentolengo hilerriari dagokienez indarrean dagoen hirigintza-plangintzan formulatzen diren aldaera-proposamenak. Hau da, errepide horiek ez eraikitzea.
- **Ekintza puntualak kontuan hartzea:** adibidez, Txoritokietako biribilgunea birmoldatzea (Beraun).

Proposatutako esku-hartze espezifikoak:

Zirkulazio-eraztun bikoitza, esku-hartze taktikoak eta aparkalekuak. Premisa horiek kontuan hartuta, Aurrerakinak 3 azpi-lerrotan jardutea proposatzen du: ibilgailuen barne-mugikortasuneko baldintzak birdefinitzea (eraztun bikoitza), hiri inklusiborako esku-hartze taktikoak zehaztea eta aparkaleku gehiagoren alde egitea paradigma berri baten pean: jabetzarik gabeko erabilera eta disuasio-erabilera lehenestea.

Eraztun bikoitza

Zirkulatzeko gaitasun ertaineko bi eraztun, udalaz gaindiko sarea (sarbideak eta irteerak) barne-mugikortasunarekin artikulatzen duten ibilgailuentzat. Berrantolaketa horrek honako hauek ahalbidetzen eta inplikatzen ditu:

- **Tomás López kalea:** bien arteko artikulazio-ardatza, eta horrek kale horretarako zehaztu beharreko irtenbide espezifiko bat zehaztu beharra dakar.
- **Eremu zabalak askatzea:** oinezkoen aldeko esku-hartzeak eraztunen barrualdeko eremuetan (adibidez, oinezkoentzako guneetan, bidegorrietan, 30 km/h baino gutxiagoko eremuetan). Prozesuan eztabaidatzeko aukera.



Planoan, proposatutako eraztun bikoitza ikusten da. Edukiera ertaineko errepideak, hiria eta kanpoaldea lotzen dituztenak, bide guztiak hartu gabe. Berrantolaketa horri esker, aukera berrietan pentsa daiteke, pertsonentzako hiri bati begira. Honekin batera, eraiki beharreko aparkaleku berriak daude.

Esku-hartze taktikoak

Ber-antolaketa orokorrari loturik, honako alternatibak proposatzen dira eztabaidarako:

- a. Gaztañoko bide-zubia: Gaztañoko pasealekuari jarraipena ematea Agustinetako biribilguneraino.
- b. Nafarroa etorbideko “by pass”-a, Askatasunaren Martirien kaletik: Gamón Zumarditik igarotzen den ibilgailu motordunari noizean behin edo betiko ixteko aukera emango luke, espazio publiko hori ibairaino eramanez.
- d. Hirigunera sartzeko saturazioak saihestea: Biteri hiribideko trafikoa bide periferiko eta edukiera handiagoko batera eramateko aukera baloratzea: Bittor Idiazabal.
- e. Nafarroa etorbideko biribilgunea zabaltzea Alabergan eta mugikortasun motorizatua berrantolatzea Iztietan. Eztabaidarako proposatutako sakoneko esku-hartzea.



Iztietako mugikortasunareko ber-antolaketa proposamena.



Gaztañoko zubibidearen proposamena norabidetzen duen planoa. Gaztaño etorbidetik Agustinetako biribilguneraino igoko litzateke.

Aparkalekuak

Oinezkoentzako espazioa berreskuratzeko helburu estrategikoa ahaztu gabe, Iztieta, Erdialdea eta Galtzaraborda-Beraun auzoetan den defizit nabarmena aitortzen da. Hala, hainbat aparkaleku-eraikin antolatzea proposatzen da, lurpean zein altueran. Jabetzaren aurrean sustapen/kudeaketa publikoko aparkalekuak, erabilera maximizatzearen alde egiten dutenak. Egoiliarrentzako aparkalekua (disuasio-aparkalekuak barne) eta bisitarientzako aparkalekua (txandaketa), azken eztabaidan eta idazketa-prozesuan zehaztu beharko dena.

Planoan ikus daitekeen bezala, aparkaleku berri hauek toki hauetan kokatuko lirateke: Pontikan, Esnabiden (San Markos kalea), Askatasunaren Martirien kalean, Gamongo zumardiaren azpian (Linoko aparkalekuaren handitzea), ETSko antzinako kotxeretan, eta Tomas Lopez kalean.

Lehendik dauden aparkalekuei aipatutakoak gehituko zaizkie (zirkulu arrosekin markatutakoak).Proposamen horiek hiri-eremura sartzeko lotuneetatik hurbil eta eskari handiena hauteman den lekuetan planteatzen dira.



E.3.5. OSOTASUNAREN IKUSPEGI GEO-ESPAZIALA

Aurrerakinak, ikusi dugunez, antolamendu-logikak, sektore-jarduerak eta unean uneko esku-hartzeak biltzen ditu. Orokortasun-maila desberdinak, barne-logika bat gordetzen dutenak eta batera begiratzea komeni dena, hautabide bakoitzaren inguruan irizpide kritiko bat garatu ahal izateko. Mugikortasunaren arloko ikuspegi integral hori honako plano honetan jasotzen da.



II.5 planoa. Mugikortasunaren arloko antolamendu-aukerak.

Ikuspegi orokor honetan, Aurrerakinak proposatzen dituen esku-hartzeak ikus ditzakegu::

- Irisgarritasuna: Puntu morez ikus daiteke igogailu sarea.
- Dagoen bizikleta-sarea eta proposamena (aldizkako lerro marroian).
- Mugikortasun motorizatuaren arloan: bide-sarea bere hierarkiarekin. Eraztun bikoitzaren proposamena, Tomas Lopez kaleko konexioa. Gainera, oinezkoen aldeko neurri intentsiboagoak aplika daitezkeen eremuak
- Aparkalekuak : lehendik dauden aparkalekuei (eremu urdinxkak) gehitzen zaizkien aparkaleku proposamen berriak (puntu arrosak) gehitzen zaizkie.

E.4.- ETXEBIZITZA: HIRI-ORBANA GEHIAGO ZABALDU GABE ESKAINTZA HANDITZEA

Garatutako ardatz estrategikoak

Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza/ Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

Demografiaren igoera txiki bat aurreikusita (2038an 40.000 biztanle baino apur bat gehiago izatea), Aurrerakinak gehienez ere 2.400 etxebizitza berri aurreikustea proposatzen du 15 urteko denbora-tartean (egungo bizitegi-parkearen % 13,7)[1]. Alderdi kuantitatiboaz gain, Aurrerakinak etxebizitza-tipologiari buruzko gogoeta egitea proposatzen du. "Zaharragoa den eta, aldi berean, urte gehiago biziko den biztanleria baten errealitatera egokitu beharko litzatekeen tipologia bilatzea, eta bi pertsonako okupaziodun etxebizitzen proportzio handiagoarekin".

Beraz, ikuspegi kontserbadoreaz ari gara, hitzaren zentzu onean. Helburu hauek ditu:

- Errenterian dagoen etxebizitza-premiari erantzutea, bi egiaztapenen barruan: etxebizitza hutsak gutxi dira (444) eta Donostialdeko metropoli-testuinguruan sartzeak presio handia eragiten du arlo horretan.
- Egungo plangintzan aurreikusitako lurzoruak baino gehiago artifizializatu gabe erantzutea.

Zehazki, aipatutako alternatibek 1.190 etxebizitza berri eskaintzen dituzte guztira. Perutxene/Sagasti eta Palaziozarra/ Larretxipi eremuetan aurreikusitako dentsitatea mantentzen bada, eskaintza 1.700 etxebizitza berrira jaitsiko litzateke. Bestela, hori izango litzateke aurreikusitako bizitegi-eskaintza berriaren banaketa, eremuen eta araubidearen arabera (babes publikoko etxebizitzak eta etxebizitza libreak).

PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK: hiriari forma emango dioten 10 antolaketa aukera

Bizitegi-eskaintzari buruzko ikuspegi orokorra azaldu ondoren, Aurrerakinak proiektatzen dituen aukerak azalduko ditugu. Hartzen dituen espazioari forma eta erabilera desberdina emango dioten aukerak. Aurkibide gisa, aukeren multzoa zerrendatuko dugu, eremuaren arabera:

- Esnabide: etxebizitzak, bide-antolamendua, garajeak eta ekipamendua.
- Gamongoa: auzo berria hiriaren hegoaldean.
- Loidi: industriaren ordez Gamongoa-Loidiko Auzo Bihotza.
- Tolare Berri: etxebizitza eta saihesbide gehiago edo kontserbatzea?
- Zamalbide Berri: etxebizitza gehiago eta saihesbidea edo kontserbatzea?
- Basanoaga: babes Publikoko etxebizitzak edo ekipamenduak.
- Galtzarabordako kiroldegiaren atzealdea: parkea, etxebizitza edo kiroldegi gehiago.
- Agustinak: kultur ekipamendua eta etxebizitza.
- Palazio-Zahara, Larretxipi: erabilera ekonomikoa, bizitegi-ekonomikoa edo aldaera garrantzitsudun bizitegi-erabilera.
- Altzate: dentsitate ertaineko bizitegi-gunea.

1. Puntu honetan, kontuan hartu behar dira udalez gaindiko irizpideak: Donostialdeko eta Bidasoa Behereko LPP (2016), 2032rako 2.058 eta 2.784 etxebizitza berri arteko tartea aurreikusten duena; eta, bestetik, LAGek 2019an ezarritako gehieneko zenbatekoa (1.922 unitate), 8 urterako.



ÁMBITO	VPP –nº viv.-	VPL –nº viv.-	TOTAL –nº viv.-
Altzate	39	150	189
Esnabide	54	27	81
Gamongoa	440	157	597
Perutxene/Sagasti	0	0	0
Palaziozarra/Larretxipi	0	0	0
Tolare Berri	0	2	2
Zamalbide Berri	0	0	0
Basanoaga	20	0	20
Galtzaraborda	16	24	40
Cocheras	24	36	60
Agustinas	0	20	20
Loidi	56	56	112
Otras en suelo urbano	6	63	69
TOTAL	655	535	1.190

Esnabide: etxebizitza, bide-antolamendua, garajeak eta ekipamendua.

Aurrerakinak dagoeneko gauzatzen ari den eta aldeko balorazioa ematen zaion proposamen bat finkatzen du. Beraungo bide-sarea osatzea eta 81 etxebizitza berri, 27 etxebizitza libre eta babes publikoko 54 etxebizitza, egitea ahalbidetuko du.

Donostia ondoan jada proiektatuta dagoen bizitegi-garapen handiak eragin handia izango du eremu honetan. Horregatik, ezinbestekoa da errepideen berrantolaketa aurreikustea, ingurua kolapsatu ez dadin. Aurrerakinean hainbat aukera jasotzen dira, San Markos biribilgunea eta San Markos kaleko altuerako aparkaleku-eraikin bat birmoldatzea dakartenak (gainean ekipamendu-erabilerak ere egin litezke).



Esnabide eremuko bizitegi- eta bide-garapenaren proposamenak orientatzen dituzten planoak. Gorriz bizitegi proposamenak eta berdez ekipamendurako aukera.



Gamongoa: auzo berria hiriaren hegoaldean

Udalak aurreko antolamenduari buruz egindako berrazterketak eta dagozkion azterlanak egin ondoren, eremua hau Plan Orokorrean ber-formulatu egin da. Alde nabarmenena da eremuko urbanizazioa asko mugatzen dela, bizitegi-eskaintza berria baztertu gabe. Hala, Aurrerakinak eremuan 597 etxebizitza berri antolatzea proposatzen du; horietatik 440 babes publikoko etxebizitzei dagozkie, eta 157 etxebizitza libreei.

Familia bakarreko etxebizitzak lehendik dagoen antolamenduari dagozkio, eta mendi-magalaren leheneratze ekosistemikoa erraztuko lukete. Esku-hartze gehiena ipar-hegoaldeko ardatzean dago: gorriz eremu libre/berdeak dituzten etxebizitzak, eta laranjaz zuzkidura-eraikina, Loidi eremuaren garapen osagarrian kokatua (auzo Bihotza berria osatzen duena).

Gamongoa eremuaren hirigintza-garapenaren proposamena bideratzen duen planoa.

Loidi: industriaren ordez Gamongoa-Loidiko Auzo Bihotza

Gamongoaren garapenaren osagarri gisa (auzo-unitate bera aurreikusiz), Aurrerakinak honako hau proposatzen du: industria-pabilioi batzuk eraistea eta, horren ordez, bizitegi- eta zuzkidura-garapen bat aktibatzea, Gamongoa eta Loidi auzo berriko "Auzo Bihotza" osatuko duen plaza bat antolatzeko. Leku horretan, plaza horri zuzentzen diren merkataritza-lokalak eta ekipamendua antolatu beharko lirateke. Gainera, 112 etxebizitza inguru sestra azpiko garajeekin. Horietatik 56 babes publikoko etxebizitzei dagozkie eta 56 etxebizitza libreei.

Antolamendu-alternatiba orientatzen duen planoa, II.7.1 planoan ere grafikoki azaltzen dena.

Tolare berri: etxebizitza eta saihesbide gehiago, edo kontserbatu?

30 urte igaro dira eremurako lehen proposamenak egin zirenetik. Dentsitate txikiko bizitegi-garapenak eta horietara konektatzeko aldaerak aurreikusi ziren. Ez dira gauzatu.

Aurrerakin honetan, indarrean dagoen planean jasotzen den proposamena eta haren aurrekoak jasotzen dira, bai eta beste aukera bat ere, zeinean saihesbide bat egitea baztertu eta garapena mugatzea aurreikusten baita, hargatik eragotzi gabe urbanizazio-obra puntualak egitea, eremuan zehar motordun zirkulazioaren ondoriozko segurtasuna hobetzeko.



Antolamendu-alternatibak orientatzen dituzten planoak, II.7.1 planoan ere grafikoki azaltzen dira.



Zamalbide Berri: etxebizitza gehiago eta saihesbidea edo kontserbatzea?

Duela 30 urte jada, hainbat jarduera aurreikusi ziren Zamalbide Berrin. Ez dira gauzatu. Ekimen horiek bizitegi-garapen handiak (dentsitate txikikoak) eta bide-sarea handitzea (saihesbidea) aurreikusten zituzten, konektagarritasuna bermatzeko.

Aurrerakin honetan, indarrean dagoen planean jasotzen den proposamena eta haren aurrekoak jasotzen dira, baita beste aukera bat ere. Hartu beharreko erabakiaren zentzua argia da:

Edo aurreko logika berresten da: bizitegi-garapen handiak (dentsitate txikikoak) eta bide-sarea handitzea (saihesbidea) aurreikusten ditu, konektagarritasuna bermatzeko.

Edo saihesbidea eta aurreikusitako garapena ez egitea erabakitzen da (horrek ez du esan nahi eremuan zehar motordun zirkulazioaren ondoriozko segurtasuna hobetzen duten urbanizazio puntualak baztertu behar direnik). Tarte horretan 4 aukera posible proposatzen dira, gaur egun planean jasozten dena eta 3 alternatiba gehiago.



Antolamendu-alternatibak orientatzen dituzten planoak, II.7.1 planoan ere grafikoki azaltzen dira.





Basanoaga: babes publikoko etxebizitzak edo ekipamenduak

Aurrerakinak bi antolamendu-aukera proposatzen ditu:

- Indarrean dagoen plangintzakoa, babes publikoko 20 etxebizitza egitea.
- Alternatiba: ekipamendu publikoa, udal-igerilekuen ondoan.

Antolamendu-alternatibak orientatzen dituzten planoak, II.7.1 planoan ere grafikoki azaltzen dira.





Galtzarabordako kiroldegiaren mendebaldeko atzealdea: parkea, etxebizitza edo kiroldegia handitu

Altzako, Antxoko eta Galtzarabordako geltokien artean egingo diren lurperatze-lanen ondorioz, trenbidearen egungo trazadurak hartzen duen lurzorua berreskuratzea aurreikusten da.

Horri dagokionez, hiru antolamendu-aukera daude:

- Horietako batek indarrean dagoen plangintzakoa jasotzen du, eta Alaberga eta Galtzaraborda artean parke bat antolatzea aurreikusten du.
- 1. alternatiba: Galtzarabordako kiroldegia handitzea (irudia: ezk.).
- 2. alternatiba: 40 etxebizitzarako edukiera duen bizitegi-garapen berria. 16 babes publikoko etxebizitzei dagozkie eta 24 etxebizitza libreei (eskuineko irudia).



Antolamendu-alternatibak orientatzen dituzten planoak ere grafikoki azaltzen dira II.7.1. planoan.

.

Agustinak: kultur ekipamendua eta etxebizitza

Udalak lurzati bat du esku-hartze eremuan. Hori kontuan hartuta, ordenamendu berria proposatzen du: komentua sormenarekin lotutako kultura-ekipamendu bihurtzea (Errenteriako Plan Estrategikoari erantzunez) eta Lousada kalearen aurreko partzelan etxebizitzak egitea (20 etxebizitza libre berri).



Palaziozarra-Larretxipi: erabilera ekonomikoa, erabilera egoitza-ekonomikoa edo bizitegi-erabilera, aldaera garrantzitsuekin

Aurrerakin honetan, Palaziozarra-Larretxipi gisa identifikatzen da indarrean dagoen Plan Orokorreko Perutxene/Sagasti eta Palaziozarra/Larretxipi eremuei dagokien lurzorua. Lekurako, Aurrerakin honek lau aukera proposatzen ditu, ezaugarri/erabilera nahiko desberdineko espazioak sorrarazten dituztenak.

- Indarrean dagoen plangintzan dentsitate txikiko edo oso txikiko bizitegi-lurzoru gisa kalifikatzen da (Aurrerakin honetako 3. alternatiba).
- Aurrerakinaren proposamena: jarduera ekonomiko desberdinen erabilerak ezartzera bideratzea (Aurrerakin honetako 1. alernatiba), hiri-eremutik (Agustinak) hurbil, non dagoeneko ekipamendu publikoak eta pribatuak dauden, bai eta inguruan beste jarduera ekonomiko batzuk ere.
    - 1. aukera gehigarria: jarduera ekonomikoetarako garapena, enpresa-parke edo antzeko gisa, non hirugarren sektoreko erabilerak ezar daitezkeen, baita bizitegi-erabilerak ere, nolabaiteko mistotasuna eraginez a priori ekipamenduak dauden ingurune batean (Aurrerakin honetako 2. alternatiba).
    - 2. aukera gehigarria: 3. alternatiban aurreikusitakoa baino dentsitate handiagoko bizitegi-garapena aurreikusten duena, 4. alternatiba.



Alternativa 1

Alternativa 2





Altzate: dentsitate ertaineko bizitegi-gunea

Antolamendu xehatua ez dago eztabaidagai, dagoeneko tramitatu baita (aurreikusitakoaren arabera) dagokion Plan Berezia. 189 etxebizitza, hirugarren sektoreko jardueretarako merkataritza-lokalak eta ekipamendu publikoetarako lurzatiak izango ditu. Iztieta baino dentsitate txikiagoa duenez (50 etxebizitza hektareako, 200en aurrean), hiri-multzoak hobera egingo du. Gainera, iparraldea Lezorekin eta portuarekin lotzeko lanak antolatu eta bizigarriago egingo du lotura.



Altzate eremuko hirigintza-garapenaren proposamena orientatzen duen planoa. Etxebizitza gorrian eta ekipamenduak (laguntza-zerbitzua laranjan, irakaskuntza-erabilera morean)

E.5.- EKIPAMENDUAK: MANTENTZEA ETA HOBETZEA

Garatutako ardatz estrategikoak

Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza/ Kultura eta euskara/ Kirola eta osasuna/

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

Aurrerakinaren abiapuntua "HAPO-ak finkatzea proposatzen den ekipamendu-arloko zuzkidura ugari jada udalerriak badituela" da(Aurrerakina, 2021:54). Hori esanda, ez da baztertzen berriz doitzea, hobetzea, lekualdatzea eta, jakina, (egoera demografiko jarraikor baten barruan) ekipamendu berriak irekitzea.

Hirigintzaren eta politika publikoaren esparru horretan ere, trenbidea lurperatzeak aukera berriak irekiko lituzke hiriko zenbait tokitan. Bestalde, auzo bihotzen ezaugarrien pixkanakako definizioak ere eragina izan beharko du ekipamenduen plangintzan (beraz, auzo eskalan xehatu beharko da).

Udalerriak ekipamendu-arloko zuzkidura ugari ditu, eta HAPO-ak horiek finkatzea proposatzen da, liburutegia kokatuta zegoen eraikinean, Magdalena ermitaren ondoan (trenbidearen oinezkoen etorbide berriaren irekieraren testuinguruan) edo Agustinetako biribilgunearen ondoan egon litezkeen egokitzapenak, eraldaketak edo ordezkapenak alde batera utzi gabe.

PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK

Planoan ikus dezakegu (I.18.1. planoa. Ekipamenduak) dagoen multzoa. Zehazki, ekintza posible batzuk definitzen dira, guztiak HAPOrako prozesuaren une honetan eztabaidagai direnak.

- Agustinetako komentua: etxebizitzaren ardatzean zehaztu bezala, zuzkidura publikorako erabiltzea (sormen kulturalarekin lotuta).
- Arramendi: aire zabaleko kirol-pistak antolatzea.
- Galtzaraborda: etxebizitza-ardatzaren alternatiben artean zehaztu den bezala, kiroldegia mendebalderantz zabaltzea (trenbidea lurperatzeak baldintzatuta).
- Basanoaga: etxebizitza-ardatzeko aukeren artean zehaztu den kirol instalazioak osatzea.
- Gamongoa: parkeko ekipamendu-partzelak antolatzea, Beraundik gertu.
- Irakaskuntza-ekipamendua: espazio nagusi batean irakaskuntza-ekipamendu baterako lurzorua gordetzea. Erabakitzen diren aukeren arabera definitu beharrekoa.


N
X= 587700,00
Y= 4797000,00
PASAIA
GAZTETXE
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
(Altza)
X= 587700,00
Y= 4794600,00
6.7.1
2.16.5
4.4
7.11
6.5.3
6.6
3.1.5
2.17.1
7.13
7.12
2.17.9
1.7
3.4
5.1.2
7.5
6.1.3
2.17.10
3.1.2
3.6.1
2.1
2.5.1
2.5.2
2.5.3
2.5.4
6.1.1
2.17.2
7.4
3.1.3
6.12.4
6.7.3
5.2
6.7.2
5.1.3
4.5
6.4
6.3
7.16
7.2
3.6.2
4.1
1.10
1.11
2.7
2.6
1.1
2.2
7.1
6.12.2
6.9.2
3.1.7
7.15
2.17.5
1.8
6.9.1
2.4
2.9
1.5
1.3
1.12
1.2
2.14
6.12.3
2.15
2.16.7
2.10
2.16.6
2.8
2.17.8
1.9
6.1.5
6.2
7.3
2.16.3
7.9
1.13
3.5
6.1.4
2.17.3
2.17.6
2.17.4
3.1.1
2.17.7
3.7
6.5.1
7.10
3.1.6
4.2
3.1.8
2.17.13
2.16.4
7.14
7.6
6.5.2
2.13
6.12.1
6.13
3.3
1.6
1.4



EQUIPAMIENTOS	EKIPAMENDUAK
ADMINISTRATIVO	ADMINISTRAZIOA
CULTURAL	KULTURALA
ASISTENCIAL	LAGUNTZA
DEPORTIVO	KIROLA
SANITARIO	OSASUNA
DOCENTE	HEZKUNTZA
RELIGIOSO	ERLIJIOSOA
NUEVO	BERRIA

1.1	UDALETXEA
1.2	BERAUN ZENTROA
1.3	ONGIZATE ZERBITZUA
1.4	HIRIMANTENUA
1.5	EMAKUMEAREN ETXEA
1.6	UDALTZAINGOA
1.7	OARSO ALDEA BULEGOA
1.8	KORREOS (ANDONI KORTA)
1.9	ERTZAINTZA
1.10	BAKE EPAITEGIA
1.11	NOTARITZA
1.12	OGASUN BULEGOA
1.13	LANBIDE
2.1	LEKUONA ZENTRO KULTURALA
2.2	TURISMO BULEGOA
2.3	FANDERIAKO ERROTA
2.4	XENPELAR ETXEA
2.5.1	NIESSEN KULTURGUNEA. 1. DANTZAGUNEA
2.5.2	NIESSEN KULTURGUNEA. 2.AUDITORIOA
2.5.3	NIESSEN KULTURGUNEA. 3. KONTSERBATORIOA
2.5.4	NIESSEN KULTURGUNEA. 4. ERESBIL
2.6	KAPITAN ETXEA
2.7	REINA ARETOA
2.8	JOSE LUIS CASO
2.9	TORREKUA
2.10 2.16.6	OARSO ZENTRO ZIBIKOA Y LUDOTEKA. 6. PABLO IGLESIAS INSTITUTO OAR
2.11	SANMARKO GOTORLEKUA
2.12	TXORITOKIETA GOTORLEKUA
2.13	ARRAMENDI GOTORLEKUA
2.14	URDABURU IKASTETXEA
2.15	LIBURUTEGIA
2.16.1	LUDOTEKA. 1. MARKOLA
2.16.2	LUDOTEKA. 2. BURBUXA
2.16.3	LUDOTEKA. 3. SAN MARKO 7-9
2.16.4	LUDOTEKA. 4. MIGUEL ALDUNTZIN 37-39
2.16.5	LUDOTEKA. 5. CRISTOBAL GAMON
2.16.6	LUDOTEKA. 7. MERKATUZAR
2.17.1	AUZO ELKARTEA. 1. KAPUTXINOAK
2.17.2	AUZO ELKARTEA. 2. ALABERGA
2.17.3	AUZO ELKARTEA. 3. PONTIKA
2.17.4	AUZO ELKARTEA. 4. IGANTZI
2.17.5	AUZO ELKARTEA. 5. GALTZARABORDA
2.17.6	AUZO ELKARTEA. 6. BERAUN
2.17.7	AUZO ELKARTEA. 7. GAZTAÑO
2.17.8	AUZO ELKARTEA. 8. ERDIALDEA
2.17.9	AUZO ELKARTEA. 9. IZTIETA
2.17.10	AUZO ELKARTEA. 10. OLIBET
2.17.11	AUZO ELKARTEA. 11. GABIERROTA
2.17.12	AUZO ELKARTEA. 12. LARZABAL
2.17.13	AUZO ELKARTEA. 13. AGUSTINAK
2.17.14	AUZO ELKARTEA. 14. FANDERIA
3.1.1	ERRETIRATUEN ELKARTEAK. 1. BERAUN "BIEN VENIDO"
3.1.2	ERRETIRATUEN ELKARTEAK. 2. OLIBET "BETI BIZKOR"
3.1.3	ERRETIRATUEN ELKARTEAK. 3. ALABERGA "MAGDALENA"
3.1.4	ERRETIRATUEN ELKARTEAK. 4. GABIERROTA "LAGUNTASUNA"
3.1.5	ERRETIRATUEN ELKARTEAK. 5. KAPUTXINOAK "SAN JOSE"
3.1.6	ERRETIRATUEN ELKARTEAK. 6. PONTIKA "ARRAMENDIPE"
3.1.7	ERRETIRATUEN ELKARTEA. 7. GALTZARBORDA "EL PARQUE"
3.1.8	ERRETIRATUEN ELKARTEA. 8. AGUSTINAK "SAN AGUSTIN"
3.2	ZAHARREN EGOITZA "SAGRADO CORAZÓN"
3.3	ZAHARREN EGOITZA "SANMARKOSENE"
3.4	GURUTZE GORRIA
3.5	DYA
3.6.1	EGUNEKO ZENTROAK. 1. OLIBET
3.6.2	EGUNEKO ZENTROAK. 2. MARTIN ETXEBERRIA
3.7	GAZTELUTXO DENBORA BATERAKO HARRERA
3.8	BELABARATZ ALBERGEA
3.9	ZENTOLEN BERRI HILERRIA
4.1	GALTZARABORDA KIROLDEGIA
4.2	BERAUNGO ESTADIOA "MIKEL ODRIOZOLA"
4.3	FANDERIA KIROLGUNEA FRONTON AGUSTINA OTAOLA
4.4	HILTEGI ZAHARRA "HIBAIKA"
4.5	BERAUNGO IGERILEKUA
5.1.1	ANBULATEGIA. 1. LARZABAL
5.1.2	ANBULATEGIA. 2. IZTIETA
5.1.3	ANBULATEGIA. 3.GALTZARABORDA
5.2	OSASUN MENTAL ZENTRUA
6.1.1	KOLDO MITXELENA. 1.FERNANDEZ LANDA
6.1.2	KOLDO MITXELENA. 2. MARKOLA
6.1.3	KOLDO MITXELENA. 3. OLIBET
6.1.4	KOLDO MITXELENA. 4. INSTITUTAO GALTZARABORDA
6.1.5	KOLDO MITXELENA. 5. AIZKORRI (PIO BAROJA)
6.2	CEPA-EUSKALTEGI
6.2	CEPA-EUSKALTEGI
6.3	JESUSEN BIHOTZA (TELLERI)
6.4	CIP ALABERGA
6.5.01	BIZARAIN. 1. BERAUN BERRI
6.5.02	BIZARAIN. 2. LANGAITZ
6.5.03	BIZARAIN. 3. DON BOSCO
6.6	DON BOSCO
6.7.1	CRISTOBAL GAMON. 1. SORGINTZULO
6.7.2	CRISTOBAL GAMON. 2. MANDOEGI
6.7.3	CRISTOBAL GAMON. 3. BASANOAGA- ESNABIDE
6.8	GURUTZETAKO ALABAK
6.9.1	ORERETA IKASTOLA. 1. ESMALTERIA
6.9.2	ORERETA IKASTOLA. 2. SANTA KLARA
6.9.3	ORERETA IKASTOLA. 3. ZAMALBIDE (DLH)
6.9.4	ORERETA IKASTOLA. 4. ZAMALBIDE (DBH)
6.10	OIARSO BATXILLERGOA
6.11	TEKNIKA
6.12.1	HAURTZAINDEGIA. 1. GOIALDE
6.12.2	HAURTZAINDEGIA. 2. PANPIN
6.12.3	HAURTZAINDEGIA. 3. GALTZATTIPI
6.12.4	HAURTZAINDEGIA. 4. UZTARGI
6.13	COLEGIO IZTIETA FONDO FORMACION EUSKADI
7.1	ANDRE MARIAREN JASOKUNDEAREN ELIZA
7.2	FATIMA PARROKIA (KAPUTXINOAK)
7.3	MADALEN ERMITA
7.4	ALABERGAKO ELIZA
7.5	SAN JOSE OBRERO ELIZA
7.6	SAN AGUNTIN ELIZA
7.7	ZAMALBIDEKO ERMITA
7.8	ZAMALBIDEKO ELIZA
7.9	BERAUNGO ELIZA
7.10	PONTIKAKO ELIZA
7.11	IZTIETAKO MEZKITA
7.12	EVANGELISTA BAUTISTA ELIZA
7.13	BAUTISTA BIBLICA DEL PUERTO ELIZA
7.14	JEHOVAREN LEKUKOAK ELIZA
7.15	PARKE KALEKO ELIZA
7.16	AL MOHSININE MEZKITA



AVANCE DE PLANEAMIENTO

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA ERRENTERIA

MAYO 2021

PLANGINTZAREN AURRERAPENA

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ERRENTERIA

2021ko MAIATZA

II. ALTERNATIVAS DE ORDENACIÓN

PLANO II.6.1
ALTERNATIVAS DE ORDENACIÓN DE EQUIPAMIENTOS

ESCALA 1:5.000

II. ANTOLAMENDU-ALTERNATIBAK

II.6.1 PLANOA
EKIPAMENDUTARAKO ANTOLAMENDU-ALTERNATIBAK

1:5.000 ESKALA

REDACTORES: IDAZLE TALDEA:

SANTIAGO PEÑALBA GARMENDIA, Arquitecto.
MANU ARRUABARRENA FLOREZ, Arquitecto.
IÑIGO PEÑALBA ARRIBAS, Arquitecto.
MIKEL RIONDO ITURRIOZ, Abogado.

PROMOTOR: SUSTATZAILEA:

ERRENTERIAKO UDALA
AYUNTAMENTO DE ERRENTERIA

E6.- ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA ETA LOKALA: ERAZTUN BERDERANTZ

Garatutako ardatz estrategikoak

/Mugikortasuna eta irisgarritasuna/ Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa/ Kirola eta osasuna/

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

Aurrerakinaren arabera, "Espazio publikoa berrantolatzearen eta antolatzearen arloan izaera estrategikoarekin egindako proposamenak, aldi berean, sareko tokiko espazio libreen sistema bat antolatzea ahalbidetuko du. Sistema horrek, oro har, hiri-eremu osoa eta auzo guzti-guztiak zerbitzatuko ditu".

Tokiko espazio libreen sareari II.4 planoan azaltzen den espazio libreen sistema orokorra gehitzea proposatzen da. Sistema hori hiri-eremuko Eraztun Berde gisa diseinatzen da, eta Oiartzun ibaiaren iparraldean dauden bi ertzetako pasealekuek osatzen dute, eta, eraztuna (edo "Berde zirkuitua") Fanderiako, Markolako, Arramendiko, Palaziozarrako, Gamutxigoko, Esnongoako parkeek osatuz.

Sare horrek 50 hektarea ditu, eta biztanle bakoitzeko 12,5 m 2 baino gehiagoko indizea osatzen du 40.000 biztanleko (eskatutakoaren bi eta erdi inguru). Zirkuitu honetan, eta jarraitutasunez, honako hau bermatu beharko da: landaretza egotea, baita zuhaitzak ere, benetan berdegune iragazkorra izan dadin eta sistema horrek Auzo Bihotzak integratu eta zeharkatu ditzan.

"Eraztun berdearen" edo "Berde zirkituaren" proposamena orientatzen duen planoa

PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK

Aipatutako eraztuna, eta honen espazioak, jarraitutasuna eta kalitatea gauzatzeko, Aurrerakinak honako ekintza hauek zehazten ditu:

- Gamongoa parkerako irisgarritasuna hobetzea Beraundik.
- Alaberga eta Galtzaraborda artean pasabide bat sortzea.
- Arramendi eta Palaziozarraren arteko jarraitutasuna berreskuratzea, bi parkeak lotuko dituen pasabide bat jarriz.
- Lurzoru publikoak finkatzea, Listorretako, Lau Haizeta parkeko, San Markoseko eta Txoritokietako inguruneetan.



II.4. planoa. Hiri-eremuan espazio publikoa antolatzeko aukerak. Aipatu eraztun berdea ikus dezakegu, bai eta hiri-barrietako espazio publikoak eta artikulazio-ardatzak inguratzen dituen forma ere.

E.7.- GARAPEN EKONOMIKOA: ERABILERA MISTOAK HIRIAN ETA LURZORU BERRIA INDUSTRIARAKO

Garatutako ardatz estrategikoak

Garapen ekonomikoa/ Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza/ Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa/

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

Funtsezko eremu honetan proposamenek 2 logika hartuko dituzte kontuan:

- Erabilera mistoak (bizitegi/aisi/ekonomiko) eta eskala txikia/hurbilekoa hiri-egituran: bestalde, dimentsio esanguratsuko merkataritza-erabilera berriak kokagune periferikoagoetan mugatzea proposatzen da. Horrekin guztiarekin, hiri-eremu finkatuan erabileren mistotasuna indartzea proposatzen da. Zerbitzu pribatuen banaketa orekatua sustatzea, auzo bizitza indartzeko ere beharrezkoak baitira. Puntu horri dagokionez, eta Auzo Bihotzak lurreratuz: "Auzo Bihotz" guztiek gertuko merkataritza eta ekipamenduak izatea sustatuko da. Horretarako, planeamenduak ahaleginak egingo ditu espazio horien aurrealdeen behealdeak erabilera horietara lehentasunez edo esklusiboki bidera daitezen. Nolanahi ere, erabilera hori ez duten etxabeak etxebizitza bihurtzea debekatzea proposatzen da, arlo horretan indarrean dagoen ordenantza behar izanez gero zuzenduz.
- Hiri-inguruko eremuan industria-lurzoru berria antolatzea: udalerrian okupatutako biztanleria aktiboaren eta enplegu-kopuruaren artean hautemandako desproportzioa ikusita, eta indarrean dagoen Plan Orokorrean aurreikusitako jarduera ekonomiko berriak ezartzeko lurzoru-eskaintza agortu dela ikusita, jarduera ekonomiko berriak ezartzeko egokiak diren lurzoruak proposatuko dira. Eskaintza horren bidez, enpresen harrera eta udalerriko langabezia-tasa murriztea ahalbidetuko duten lanpostuak sortu nahi dira, bai eta errenteriar berriei enplegua eman ere.

PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK

Ikuspegia zehaztuta, Aurrerakinak bigarren beharrari erantzuten dioten proposamenak proposatzen ditu: lurzoru berria, hiri-inguruko eremuan industria-arloko jarduera ekonomikoak ezartzeko. Horren ondorioz, hiru antolamendu-proposamen egingo dira hiri-bilbearen hegoaldean.

Hemen lurreratuko dira:

- Morrontxo: 43.500 m2 San Markoseko hegalean.
- Tolarieta: Masti-Loiditik hegoalderantz, bide-ardatzari jarraituz.
- Egiluze: dagoena antolatzea eta hobetzea.
- Intzinarte: garatu edo kontserba


TXIRRITA-MALEO
MORRONTXO
PALAZIOZARRA/LARRETXIPI
OIART
EGILUZE
EGIBURU
TOLARIETA
INTZINARTE
TOLARIETA ALTERNATIBA 2
TOLARIETA ALTERNATIBA 3

Morrontxo: 43.500 m2 San Markoseko hegalean

Txirrita-Maleotik izango luke sarbidea, eta eremu horretako hiri-jarraitua izango luke. Handitze proposamen naturala da, baina San Markoseko hegala gehiago okupatzea dakar eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak balio estrategiko handiko gisa kalifikatutako lurzoruei eragingo die. 43.500 m2 inguruko lurzoruan pabiloi berriak proposatzen dira, eta eremuari izena ematen dion eraikin bati soilik eragiten diote.





Tolarieta: 41.500m2 Tolarietako ibarrean

Masti-Loidik hegoalderantz, bide-ardatzari jarraituz, deskribatutako defizitari erantzunez, Tolarietako ibarrean esku hartzea proposatzen da: hura betetzea. Sorondo errekarako beste ibilgu bat antola liteke aire zabalean. Horrela, plataforma berri bat proposatzen da, 41.500 m2 pabiloi berriek okupatutako lurzorua har lezakeena. Pabiloi horiei 10.000 m2 gehitu behar zaizkie, industria-pabiloietakoak ez diren beste jarduera batzuetarako. Eremu hori Masti-Loidi industrialdearen jarraipenean kokatzen da estrategikoki, eta haren sarbideak partekatu ahal izango lituzke.

Proposamenak haranean finkatuta dauden hiru eraikinei eragiten die.

Aurrerakin honetan proposatutako alternatibak grafikoki azaltzen dira II.8 planoan, baita grafiko hauetan ere.



Egiluze: dagoena antolatzea eta hobetzea

Indarrean dagoen plangintzak industria-lurzoru gisa kalfikatutako lurzorua da, eta ingurumen-hobekuntza eskatzen duen egoera batean dago. Horretarako, kalifikazio hori finkatzea eta tokian bertan esku hartzen saiatzea proposatzen da, hiri- eta ingurumen-birkualifikazioa ahalbidetzeko. Gainera, 6.000 m2 inguru pabiloi berriek hartuko lukete lurzorua, eta irisgarritasun-baldintza onak izango lituzkete egungo industria-eremuetara sartzeko sarbidetik, eta horiekin jarraituz.

Antolamendu-aukera hori grafikoki azaltzen da II.8 planoan, bai eta hurrengo grafikoan ere



Intzinarte: garatzea edo kontserbatzea

Tolareberriko ingurunearen ondoan, kokaleku isolatu bat dago, Intzinarte inguruan dauden pabiloi batzuk protagonista dituena. Indarrean dagoen plangintzak kokaleku hori handitzea aurreikusten du, eta, ondorioz, haren urbanizazio integrala egitea. Horretarako, GI-3671 errepidean biribilgune berri bat egitea aurreikusten da, baina orain arte ez da halakorik egin.

HAPO-a berrikusteko prozesua dela eta, kontuan hartu beharko da antolamendu-aukera horri eusten zaion edo, Tolare Berri eta Zamalbide berri eremu isolatuetan planteatu den bezala, zabaltze-proposamena baztertzen den, dagokion erregulazioa ezartzeari kalterik egin gabe. Antolamendu-aukera hori grafikoki ilustratzen da II.8 planoan, baita hurrengo grafikoan ere.

Antolamendu-aukera hori grafikoki azaltzen da II.8 planoan, bai eta hurrengo grafikoan ere









E8. LANDA-INGURUNEAREN ANTOLAMENDUA

Garatutako ardatz estrategikoak

Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa kontuan hartuta, Aurrerapenaren helburua da ekoizle berrien abiatzea sustatzea laguntzea eta nekazaritza-parke bat ere antolatzea. Ahal dela, Frantzillan. Gainera, lurzoru urbanizaezinaren zonakatze globalerako proposamena aurreratu du.

Jakina, kudeaketa-planek araututako naturaguneen babes bereziari eustea proposatzen da:

Aiako Harriko Parke Naturala edo Añarbeko baso-erreserba. I.1 planoan azaltzen da grafikoki aurrerapen honetan formulatzen den zonakatze globalaren proposamena.

Ez da proposatzen lehen sektoreari lotutako jarduera zehatzik.

PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK

Ikuspegi honen baitan, Aurrerakinak honako hau proposatzen du:

- Ingurumena hobetzeko eremuak definitzea: betelanak edo isurketak jasan dituzten lurzoru eraldatuak, edo harrobiak izan dituztenak, baldin eta leheneratzeko beharra badute.
    - San Markoseko zabortegiaren zati degradatua.
    - Txoritokietako hegoaldeko hegalaren inguruan dagoen harrobia eta materialak isurtzeko eremua.
    - Alduraren inguruan ohartarazitako betelana.
- Lau Haizeta parkeari dagokionez, Lau Haizeta Parkea Aiako Harriko Parke Naturalarekin lotzeko korridore bat antolatzea proposatzen du, bi eremuak interes komunitarioko habitat gisa definituz. Aipatutako baldintzatzaile gainjarriak grafikoki azaltzen dira II.2 eta II.3 planoetan.
- Ur-bilketak eta babestutako eremu bezala definitzen ditu: Landarbasoko kobazuloa, Aitzpitartera eta Añarbera. Babes hori Oiartzungo estuarioko eremu zaurgarrira hedatzen da.
- Beste natura-gune interesgarri batzuk definitzen ditu: Añarbeko urtegia eta udalerrian dauden hezeguneak. Hemen Pagosarde, Malmazar, San Marko, Igantzizabal eta Kutarro aipatzen dira.
- Interes paisajistikoko eremu hauek biltzen ditu: Añarbe, Zaria, Urdaburu, Igoin Akola, Aldura, Aitzpitarte, Txoritokieta eta San Markos.
- Morrontxoren industria-garapena proposatzen den eremuetako batzuk abeltzaintzarako balio estrategiko handiko, paisaia-intereseko eta trantsizioko landa-paisaia duten eremu bezala definitzen dira. Aipatu behar da industria-handitzeak proposatzen diren eremua horiek izango liratekeela lehen sektorerako garapen-planen bat gauzatzeko eremu egokienak.



II.1 planoan azaltzen da grafikoki aurrerakin honetan formulatzen den zonakatze globalaren proposamena.



II.2 planoan lurzoru urbanizaezinean gainjarritako baldintzatzaileak azaltzen dira.



I.6 planoan landaredi motak eta lurzoruaren erabilerak azaltzen dira.



I.10 planoan, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren zeharztapenak azaltzen dira.



E.9. ONDARE NATURALA, KULTURALA, ARKITEKTONIKOA ETA ARKEOLOGIKOA BABESTEA

Garatutako ardatz estrategikoak

Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa/ Kultura eta euskara/

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

Aurrerakinak Errenteriako ondarearen katalogazioa proposatzen du, hainbat dimentsio jorratu behar dituena: ondare naturala, kulturala, arkitektonikoa eta arkeologikoa. Horretarako, indarrean dagoen Plan Orokorraren Katalogoan oinarrituko da, eta, bestetik, dagokion eskumen sektorialetik eratorritako dokumentazioan. Dagokion "katalogoak" mugatuko ditu babestutako elementuak.

INTERVENCIONES ESPECIFICAS PROPUESTAS

Esandakoarekin bat etorriz, Aurrerakinak katalogo-proposamen bat aurkeztu besterik ez du egiten, eta proposamen hori onartu, aldatu edo osatu egin beharko da, bai eztabaida-prozesuan, bai behin betiko idazketa-prozesuan. Proposatutako katalogoa hurrengo planoetan ikus dezakegu.


N
Bosquetes autóctonos regata de ANTXULO
Estación Megalítica de IGOIN-AKOLA
Cista de LANGA
Bosque mixto de AIZPITARTE
ROBLEDALES
Cueva de AITZBITARTE III
Cueva de AITZBITARTE IV
Cueva de AITZBITARTE V
Cueva de AITZBITARTE IX
Cueva de AITZBITARTE II
Cumbre y Laderas Mt. AIZPITARTE
Cumbre y Laderas Mt. ALDURA
ROBLEDALES
Cumbre y Laderas Mt. ZARIA
Cumbre y Laderas Mt. URDABURU
HAYEDOS
Circo AÑARBE
FERRERIA DE AÑARBE (Clave E)
ROBLEDALES
53
54
ESCALA 1:25.000
Dolina EGUZKIBORDA
Dolina ARKIRI
Bosque mixto de TXORITOKIETA
Laderas del Mt. TXORITOKIETA
Fuerte TXORITOKIETA
20
Monolito de TXORITOKIETA



PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO

PROTECCIÓN ESPECIAL

- CONJUNTO MONUMENTAL DEL CASCO HISTÓRICO
- CONJUNTO MONUMENTAL DEL CAMINO DE SANTIAGO

PROTECCIÓN MEDIA

2	CONVENTO DE LAS AGUSTINAS
3	ERMITA DE LA MAGDALENA
21	CASA XENPELAR
27	FUERTE DE SAN MARCOS
29	FUERTE DE TXORITOKIETA
44	CASERÍO LOIDI
45	CASERÍO TXIRRITA
53	CENTRAL HIDROELÉCTRICA MENDARAZ
54	CENTRAL HIDROELÉCTRICA ARRANBIDE
54-1	Presa y canal
59	MATADERO
60	ESTACIÓN DEL TOPO
60-1	Cocheras
61	VIADUCTO DE ERRENTERÍA
64	LA PAPELERA ESPAÑOLA
64-3	Oficinas
99	IESA
99-2	Zona de producción
99-4	Oficinas administrativas
131	1ª FASE ALABERGA AUZOA
132	2ª FASE ALABERGA AUZOA
143	CASA EN AVDA. NAVARRA 79, VITERI 48, FRANTSISKO GASKUÑE 1

INTERÉS LOCAL

25	CASA EN CAMGDALENA 36
46	CASERÍO ISTURIZAGA BEKOA
47	CASERÍO TOBAR
48	CASERÍO ZAMARBIDE
49	CASERÍO BORDAONDO
50	CASERÍO ANABITARTE
51	CASERÍO BENTA
52	CASERÍO LARTZABAL
64-1	LA PAPELERA ESPAÑOLA_Casa de los encargados
67	MOLINO FANDERÍA
96	ANTIGUO CEMENTERIO
97	FUENTE
99-1	IESA_ Nave en shed
99-3	IESA_ Oficina técnica
102	MERKA OIARTZUN
106	VIADUCTO DEL TOPO
107	FRONTÓN FANDERÍA
108	FRONTÓN DE BERAUN
109	FRONTÓN IBON ZABALA
111	CASA HERRI GAIN
112	CASA EN c/ MARKOLA 2
113	CASAS EN c/ MARKOLA 1, 3, 5 Y 7, c/ MIGUEL ALDUNTZIN 25, 27.
114	CASA EN c/ MIGUEL ALDUNTZIN 30
115	CASA EN c/ MIGUEL ALDUNTZIN 19
116	CASA EN c/ MIGUEL ALDUNTZIN 23
118	CASA EN c/ MIGUEL ALDUNTZIN 28
121	CASA EN c/ GAZTAÑO 43
125	CASA EN c/ GAZTAÑO 7, 8, 9, 10, 12, 13 Y 14
133	CASA EN c/ ZUBIAURRE 1 Y 3, c/ URANTZU 4
134	CASA EN c/ CRISTOBAL GAMON 12
136	VILLA LEHENBIZIKO LOREA
138	CASA LORE-ARTEAN Y LORE-TOKI
140	VILLA JOSEFINA
141	VILLA SAN ANTONIO
144	CASA EN c/ BITERI 44, c/ FRANTSISKO GASKUÑE 4
145	CASA EN c/ BITERI 42
146	CASA EN c/ SEGUNDO ISPIZUA 1
147	CASA EN c/ BITERI 34 Y 36
151	CASA EN ALAMEDA JUAN IGNACIO GAMÓN 14
152	CASA EN c/ KAPITANEA 24
153	CASA DE LA PAPELERA

PATRIMONIO ARQUEOLÓGICO

ZONAS DE PROTECCIÓN ESPECIAL

- CUEVAS DE AIZPITARTE
- ESTACIÓN MEGALÍTICA DE IGOIN-AKOLA
- ESTACIÓN MEGALÍTICA DE TXORITOKIETA

ZONAS DE PROTECCIÓN MEDIA

- CONJUNTO MONUMENTAL DE LA ZONA ARQUEOLÓGICA DEL CASCO HISTÓRICO

ZONA DE PRESUNCIÓN ARQUEOLÓGICA (CLAVE)

BIENES MERECEDORES DE PROTECCIÓN ESPECIAL

ESTACIÓN MEGALÍTICA DE TXORITOKIETA

ZONA CON INDICIO DE INTERÉS ARQUEOLÓGICO

CUEVA XENPELAR

PATRIMONIO NATURAL

- AREAS FORESTALES DE PROTECCION ESTRICTA
- AREAS FORESTALES PROTEGIDAS
- AREAS DE ALTO INTERES PAISAJISTICO
- FORMACIONES GEOLOGICAS:DOLINAS
- ARBOLES PROTEGIDOS

OTROS BIENES INMUEBLES DE INTERÉS CULTURAL

- ARQUITECTURA RELIGIOSA
- ARQUITECTURA MILITAR
- ARQUITECTURA E INGENIERÍA INDUSTRIAL
- ARQUITECTURA RURAL

RETABLOS

- RETABLO DE LA ASUNCIÓN
- RETABLO MAYOR

EDIFICIOS EN CASCO HISTÓRICO

- PROTECCIÓN ESPECIAL
- PROTECCIÓN MEDIA
- PROTECCIÓN BÁSICA
- INTERÉS CULTURAL



AVANCE DE PLANEAMIENTO

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA ERRENTERIA

MAYO 2021

PLANGINTZAREN AURRERAPENA

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ERRENTERIA

2021ko MAIATZA

II. ALTERNATIVAS DE ORDENACIÓN

PLANO II.14
PATRIMONIO CULTURAL ARQUITECTÓNICO Y ARQUEOLÓGICO

ESCALAS 1:25.000, 1:10.000

II. ANTOLAMENDU-ALTERNATIBAK

II.14 PLANOA
ARKITEKTONICO ETA ARKEOLOGIKO KULTUR ONDAREA

1:25.000, 1:10.000 ESKALAK

REDACTORES: / IDAZLE TALDEA:

SANTIAGO PEÑALBA GARMENDIA, Arquitecto.
MANU ARRUABARRENA FLOREZ, Arquitecto.
ÍÑIGO PEÑALBA ARRIBAS, Arquitecto.
MIKEL IRIONDO ITURRIOZ, Abogado.

PROMOTOR: / SUSTATZAILEA:

ERRENTERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

BEHIN-BEHINEKO ITXIERA

EZTABAIDA, EBALUAZIOA ETA GIDALERROEN ONARPENA.

Amaitzeko, gai bakarra azpimarratu behar da: hemen jasotako proposamenak eta aukerak eztabaida publikoan landu beharko dira. Espazio herritar, politiko eta/edo teknikoetan ebaluatuak eta osatuak izan beharko dira. Herritarrek banaka, elkarteetan zein mugimenduetan antolatuta aztertzeko aukera izango dute.

Eztabaida hori erraztea eta edukiz hornitzen laguntzea izan da dokumentu honen helburu nagusia, eta esan bezala, jatorrizko Aurrerakinaren irakurketarekin osa daiteke. Eztabaidaren eta parte-hartzearen ondoren, hurrengo 15 urteetan Errenteriako hiri-garapena gidatuko duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren azken idazketarako funtsezko gidalerroak onartu beharko dira.